



Aurrekontu-proiektua  
Proyecto de Presupuestos

ART. 6, 3 E  
21/2003



ERRETERIA  
UDALA

A  
P  
R  
E  
S  
U  
P  
U  
E  
S  
T  
O  
S  
A  
R  
R  
E  
K  
O  
N  
T  
U  
A  
K

2023



## **2023KO AURREKONTU PROIEKTUA: AURKIBIDEA** **PROYECTO DE PRESUPUESTO 2023: ÍNDICE**

	<b>AURKIBIDEA</b>	<b>1</b>
	ÍNDICE	
<b>0.-</b>	<b>UDAL ORGANOAK</b>	<b>2</b>
	<b>ÓRGANOS MUNICIPALES</b>	
<b>1.-</b>	<b>ALKATEAREN MEMORIA</b>	<b>5</b>
	MEMORIA DE LA ALCALDESA	
<b>2.-</b>	<b>SAIL ETA AZPISAILETAKO MEMORIAK</b>	<b>14</b>
	MEMORIAS ÁREAS Y SUBÁREAS	
<b>3.-</b>	<b>UDAL AURREKONTUA: SARRERAK ETA GASTUAK</b>	<b>148</b>
	PRESUPUESTO MUNICIPAL: INGRESOS Y GASTOS	
	03_01_01_Sarrerak Kapituluka / Ingresos capítulos	
	03_01_02_Sarrerak Org._kap._laburpena. / Ingresos Org_Cap. resumen	
	03_01_03_Sarrerak Sailak_ekonomikoa. /Ingresos Dep._económica	
	03_02_01_Gastuak ekonomikoa_programa/Gastos económica_programa	
	03_02_02_Gastuak kapituluka laburpena/Gastos capítulos resumen	
	03_02_03_Gastuak Organo eta kapituluka_Laburpena / Gastos Dep_capítulo	
	03_02_04_Gastuak_Sail eta ekonomikoa / Gastos_Dep._económica	
	03_03_01_Gastu Programen sailkapena_Clasificación programas de gastos	
	03_03_02_Gastu Programak partidaka_Programas de gastos por partida	
<b>4.-</b>	<b>ERANSKINA: KONPROMISO KREDITUAK</b>	<b>309</b>
	ANEXO: CRÉDITOS DE COMPROMISO	
<b>5.-</b>	<b>ERANSKINA: INBERTSIOAK</b>	<b>311</b>
	ANEXO: INVERSIONES	
<b>6.-</b>	<b>UDAL LURZORU ONDAREARI BURUZKO TXOSTENA</b>	<b>315</b>
	INFORME SOBRE EL PATRIMONIO MUNICIPAL DEL SUELO	
<b>7.-</b>	<b>ERANSKINA: TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	<b>324</b>
	ANEXO: TRANSFERENCIAS CORRIENTES	
<b>8.-</b>	<b>ERANSKINA: ZORPETZEA</b>	<b>334</b>
	ANEXO: ENDEUDAMIENTO	



<b>9.-</b>	<b>ERANSKINA: PERTSONALAREN PLANTILLA</b> ANEXO: PLANTILLA DE PERSONAL	<b>336</b>
<b>10.-</b>	<b>AURREKONTU BATERATUA</b> PRESUPUESTO CONSOLIDADO	<b>348</b>
<b>11.-</b>	<b>MENPEKO ENTITATEAK:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>ERREENTERIA MUSIKAL ERAKUNDE AUTONOMOA</b></li> <li>• <b>OARSOALDEA, S.A.</b></li> <li>• <b>BADIA BERRI, S.A.</b></li> <li>• <b>ERREENTERIA GARATUZ S.A. (Jarduerarik gabe)</b></li> </ul> <p>ENTIDADES DEPENDIENTES:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• ORGANISMO AUTÓNOMO ERREENTERIA MUSIKAL</li> <li>• OARSOALDEA, S.A.</li> <li>• BADIA BERRI, S.A.</li> <li>• ERREENTERIA GARATUZ S.A. (sin actividad)</li> </ul>	<b>353</b>
<b>12.-</b>	<b>UDALAZ GAINDIKO ENTITATEAK:</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>AUTORIDAD TERRITORIAL DE TRANSPORTE DE GIPUZKOA</b></li> <li>• <b>SAN MARKOS MANKOMUNITATEA</b></li> <li>• <b>AÑARBEKO URAK MANKOMUNITATEA</b></li> <li>• <b>ERESBIL FUNDAZIOA</b></li> </ul> <p>ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• AUTORIDAD TERRITORIAL DE TRANSPORTE DE GIPUZKOA</li> <li>• SAN MARKOS MANKOMUNITATEA,</li> <li>• AÑARBEKO URAK MANKOMUNITATEA</li> <li>• ERESBIL FUNDAZIOA</li> </ul>	<b>543</b>
<b>13.-</b>	<b>ITXITAKO AZKEN LIKIDAZIOA (2020) ETA AURTENGO EXEKUZIOAREN AURRERAPENA (3. HH)</b> ÚLTIMA LIQUIDACIÓN CERRADA (2020) Y AVANCE EJECUCIÓN EJERCICIO (3ER TRIM.)	<b>696</b>
<b>14.-</b>	<b>AURREKONTU EXEKUZIOA UDAL ARAUA</b> NORMA MUNICIPAL DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA Eranskinak/Anexos:  14.1. Barne Kontrolerako araudia / Reglamento control interno. 14.2. Diruzaintza / Tesorería	<b>921</b>
<b>15.-</b>	<b>KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA</b> INFORME DE LA INTERVENTORA	<b>970</b>



# 0.- UDAL ORGANOAK ORGANOS MUNICIPALES

ART. 6, 3 E  
21/2003



ERRETERIA  
UDALA

A  
P  
R  
E  
S  
U  
P  
U  
E  
S  
T  
O  
S  
  
K  
O  
N  
T  
A  
K  
A  
K

2023

**Korporazioa: ERRETERIA Corporación: ERRETERIA**

**ORGANOAK /ÓRGANOS**

01	ALKATETZA ETA GOI KARGUAK ALCALDIA Y CARGOS ELECTOS
02	GIZA BALIABIDEAK RECURSOS HUMANOS
03	OGASUNA ETA GARAPEN EKONOMIKOA HACIENDA Y DESARROLLO ECONÓMICO
04	HIRIGINTZA URBANISMO
05	INGURUMENA MEDIO AMBIENTE
06	HEZKUNTZA ETA GAZTERIA EDUCACIÓN Y JUVENTUD
07	GIZARTE ZERBITZUAK SERVICIOS SOCIALES
08	KULTURA CULTURA
09	HIRI MANTENUA MANTENIMIENTO URBANO
10	HIZKUNTZ POLITIKA POLÍTICA LINGÜÍSTICA
11	UDAL PATRONATOAK PATRONATOS MUNICIPALES
12	TRAFIKOA, GARRAIOA, HIRITARREN BABESA ETA BABES ZIBILA TRÁFICO, TRANSPORTES, PROT.CIUDADANA Y PROTECCIÓN CIVIL
13	BERDINTASUNA IGUALDAD
14	KULTURA ANIZTASUNA, GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK CULTURA DE LA DIVERSIDAD, COOPERACIÓN AL DESARROLLO Y DERECHOS HUMANOS
15	KIROLAK DEPORTES
16	IDAZKARITZA OROKORRA SECRETARIA GENERAL
17	KONTRATAZIOA ETA ONDAREA CONTRATACIÓN Y PATRIMONIO
18	AGIRITEGIA ETA ARGITALPENAK ARCHIVOS Y PUBLICACIONES
19	INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK (IKT) TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y COMUNICACIÓN (TIC)
20	INFORMAZIO GIZARTEA ETA HERRITARREN PARTEHARTZEA SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN CIUDADANA
21	LIBURUTEGIA BIBLIOTECA



1.- ALKATEAREN MEMORIA  
MEMORIA DE LA ALCALDESA

ART. 6, 3 E  
21/2003



ERRETERIA  
UDALA

A  
P  
R  
E  
S  
U  
P  
U  
E  
S  
T  
O  
S  
  
K  
O  
N  
T  
A  
K  
A  
K

2023



**2023KO AURREKONTUAK - MEMORIA**

**PRESUPUESTOS 2023 - MEMORIA**

**1) Aurrekariak**

Hurbiltzen ari zaigun 2023 urtean, pandemia atzean uztear gaudela dirudien horretan, bestelako gertaerek errekupeziarako bidea oraindik ere ziurgabetasunez bete dute. Edonola ere, aurrekontu ikuspuntu batetik Errenteriako Udala inoiz baino sendoago agertzen da egoerari aurre egiteko.

Izan ere, 2023ko aurrekontuak % 8,5eko igoera aurreikusten du: Udalen Finantzaketarako Foru Funtsaren igoera, Europar Batasunetik etorritako Next Generation Funtsak... aldi berean, herritarrengan eragin zuzena duten zerga eta tasak izoztea erabaki den ekitaldian.

**1) Antecedentes**

En el próximo año 2023, cuando parece que estamos a punto de dejar atrás la pandemia, otros acontecimientos llenan de incertidumbre el camino de la recuperación. En cualquier caso, desde un punto de vista presupuestario, el Ayuntamiento de Errenteria se encuentra más fuerte que nunca para afrontar la situación en que nos encontramos.

De hecho, el presupuesto de 2023 prevé un incremento del 8,5 %: aumento del Fondo Foral de Financiación Municipal, Fondos Next Generation procedentes de la Unión Europea... todo ello en un ejercicio en el que, al mismo tiempo, se ha acordado la congelación de impuestos y tasas que afectan directamente a la ciudadanía.

<b>2020</b>	<b>2021</b>	<b>2022</b>	<b>2023</b>
<b>55.403.100 €</b>	<b>55.171.884 €</b>	<b>58.134.300 €</b>	<b>63.073.500 €</b>
<b>% 2,63</b>	<b>- % 0,06</b>	<b>% 4,99</b>	<b>% 8,50</b>

2023ko Errenteriako Udaleko aurrekontuak ere, behin amaituta eta erabilgarri daudenean, udalerrian inpaktu handia izango duten inbertsio esanguratsuak (Pontika, Beraun, Gabierrota...) finantzatzeko mailegua ere aurreikusten du.

Asimismo, el presupuesto del Ayuntamiento de Errenteria para 2023 prevé contratar un préstamo para financiar importantes inversiones, que, una vez se hayan ejecutado y estén disponibles, tendrán gran impacto en el municipio (Pontika, Beraun, Gabierrota...)

Azpinarratzekoa baita legegintzaldi honetan Cabe destacar también que en esta legislatura el



Udalaren zorpetze maila txikituz joan dela, nivel de endeudamiento del Ayuntamiento ha ido azken 2-3 urtetan hasierako aurrekontuan disminuyendo, dado que los préstamos previstos aurreikusitako maileguak ez baitira azkenean en los presupuestos iniciales de los últimos 2-3 kontratatu, gainontzeko sarreren bilakaera años finalmente no se han contratado, debido, positiboarengatik, besteak beste. entre otros motivos, a la positiva evolución del resto de los ingresos

	2019	2020	2021	2022*	2023*
<b>DISPOSATUTAKO ZORRA</b>					
Deuda dispuesta	15.674.836 €	13.724.216 €	9.881.630 €	8.165.630 €	10.137.630 €
<b>BAIMENDUTAKO ZORRA</b>					
Deuda autorizada	17.614.836 €	15.664.216 €	9.881.630 €	10.965.630 €	13.037.630 €
<b>AURREKONTUA</b>					
Presupuesto	53.982.456 €	55.403.100 €	55.371.884 €	58.134.300 €	63.073.500 €

\* 12/31rako estimazioa / Estimación a 31/12

## 2) 2023ko aurrekontuaren ezaugarriak

- 63 miloi euroko aurrekontu proiektu bat prestatu da 2023rako, iazkoa baino % 8,5 handiagoa.
- Aipatu bezala, igoeraren arrazoi nagusiak dira: Udalen Finantziatorako Foru Funttsaren igoera, Next Generation Funttsen finantzatutako dirulaguntzak, mailegu berrien aurreikuspena, udal zergabilketaren bilakaera ona...
- Diru-sarrera aurreikuspen horiek baliatuta, ia departamentu guztiek igoera

## 2) Características del presupuesto de 2023

- Para 2023 se ha elaborado un proyecto presupuestario de 63 millones de euros, un 8,5 % más que el año pasado.
- Como se ha señalado, el aumento presupuestario se debe principalmente al incremento del Fondo Foral de Financiación Municipal, las subvenciones financiadas con cargo a los Fondos Next Generation, la previsión de nuevos préstamos, la positiva evolución de la recaudación tributaria municipal...
- En base a dichas previsiones de ingresos, casi todos los departamentos prevén





aurreikusten dute haien gastu-programen guztizkoetan.

un incremento en los totales de sus programas de gastos.

- Horrela, bi helburu betetzen dira: alde batetik, 2019-2023 agintaldi planaren garapenean sakondu eta bestetik, austeritatea alde batera utzita, Errenteriako biztanleen ongizatea bermatzeko eta tokiko ehun ekonomikoa eutsi eta bultzatzeko neurriak bideratu.

- Se cumplen así dos objetivos: por una parte, se ahonda en el desarrollo integral del Plan de Mandato 2019-2023, y por otra parte, se articulan medidas para garantizar el bienestar de la población de Errenteria y para mantener e impulsar el tejido económico local, dejando de lado la austeridad.

- Zentzu berean, dirulaguntza eta transferentziatarako gastu-aplikazioek, iazko zenbatekoekin alderatuz, ia %15eko igoera jasan dute.

- En el mismo sentido, las aplicaciones de gasto destinadas a subvenciones y transferencias experimentan un incremento respecto al año pasado que roza el 15%.

- Inbertsioei dagokionez, 2022ko kopurua nabarmen igo da, %28aren bueltan. Aurreko urtetatik datozen proiektu plurianualei kabida ematearekin batera egitasmo berriek ere tokia dute 2023ko aurrekontuan.

- En cuanto a las inversiones, hay un incremento importante respecto al año pasado. Se da cabida a los proyectos plurianuales procedentes de años anteriores y asimismo hay nuevas partidas de inversión.

- Iazko zenbatekoekin alderatuz, arloen bilakaera honako hau da:

- La evolución de los departamentos en relación con los importes del año pasado es la siguiente:

Alkatetza eta goi karguak	0,0%
Giza baliabideak	4,3%
Ogasuna	-10,2%
Garapen ekonomikoa	4,5%
Hirigintza	27,95%
Ingurumena	3,44%
Hezkuntza eta gazteria	12,4%
Gizarte zerbitzuak	3,8%
Kultura	3,3%
Hiri mantenua	20,2%
Udal hizkuntza politika	4,3%
Errenteria Musikal	10,0%
Trafikoa, garraioa, hiritarren babesa eta babes zibila	0,2%



Berdintasuna	%10,70
Dibertsitatea	21,1%
Kirolak	6,5%
Idazkaritza	0,0%
Kontratazioa eta ondarea	-0,4%
Artxiboa	-13,9%
Informatika	-20,5%
Informazio gizartea eta herritarren partehartzea	-2,4%
Liburutegia	0,0%

Jarraian, Udaleko sail bakoitzak aurrekontu osoarekiko duen pisu erlatiboa zein den aurkezten da. Kasu honetan, gastu programak eta arloko giza baliabideak kontutan hartuak izan dira.

A continuación se presenta el peso relativo de cada departamento del Ayuntamiento respecto al presupuesto total. En este caso se han tenido en cuenta los programas de gasto y los recursos humanos del área.

Artxiboa	%0,50
Berdintasuna	%0,60
Idazkaritza	%0,60
Dibertsitatea	%0,70
Kontratazioa eta ondarea	%1,10
Informatika	%1,40
Liburutegia	%1,40
Alkatetza eta goi karguak	%1,50
Udal hizkuntza politika	%2,30
Kirolak	%2,30
Informazio gizartea eta herritarren partehartzea	%2,30
Hezkuntza eta gazteria	%2,50
Herri Arte Eskola	%3,10
Giza baliabideak	%3,80
Kultura	%4,30
Ingurumena	%5,50
Ogasuna eta garapen ekonomikoa	%7,50
Gizarte zerbitzuak	%10,40
Hirigintza	%10,50
Trafikoa, garraioa, hiritarren babesa eta babes zibila	%11,40
Hiri mantenua	%26,00



### 3) Sarrera eta gastu-egoerak

#### 1. Sarrerak:

Sarrerak kalkulatu dira 2021 eta 2022ko datuen bilakaera eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2023rako UFFFrako egindako aurreikuspena oinarri hartuta.

Ahaztu gabe, noski, Udalbatzarrak bere urriko saioan, aho batez erabaki zuela 2023rako zerga eta tasak izoztea.

Bestalde, Europar Batasunak finantzatuta Errenteriako Udalak 2023an zehar, gutxienez, Next Generation Funtsen bitartez 1.200.000 euro jasoko dituela aurreikusten da.

Azkenik, aurtengoan gehienez ere 2,9 miloi euroko mailegua eskatzea aurreikusi da.

Udalaren Aurrekontu Proiektua 63.073.500 eurokoa da.

#### 2. Gastuen egoera:

Udalaren Gastu Aurrekontu Proiektuari buruz honako aipamen hauek azpimarratu behar dira:

- Agintaldi planaren garapenean erabat sakontzen da.
- la departamentu guztiek gora egin dute.
- Pertsonal gastuetan Estatu mailan enplegatu publikoen soldatekiko hartutako

### 3) Estado de ingresos y gastos

#### 1. Estado de Ingresos:

Los ingresos han sido calculados tomando como base los datos del 2021 y 2022, y la previsión del FFFM realizada por la Diputación Foral de Gipuzkoa para 2023.

Sin olvidar, claro está, la congelación de impuestos y tasas para 2023 acordada por el Pleno de la Corporación en su sesión de octubre.

Por otra parte, se prevé que a lo largo del año 2023 el Ayuntamiento de Errenteria recibir á como mínimo 1.200.000 euros a través de los Fondos Next Generation financiados por la Unión Europea.

Por último, este año está previsto solicitar un préstamo por un importe máximo de 2,9 millones de euros.

El Proyecto de Presupuesto del Ayuntamiento asciende a 63.073.500 €.

#### 2. Estado de Gastos:

En cuanto al Proyecto de Presupuesto de Gastos del Ayuntamiento cabe mencionar los siguientes aspectos:

- Se ha conseguido profundizar en su integridad en el Plan de Mandato
- Incremento en prácticamente todos los departamentos.
- En el apartado de gastos de personal se prevén los incrementos derivados de los



akordioek ekarriko dituzten igoerak aurreikusitako diruak.

acuerdos salariales para el personal público alcanzados a nivel estatal.

- Gastu eta zerbitzu arruntetan KPIaren gorako bilakaerak, gastu aurreikuspenetan 2 milioi euro baino gehiagoko igoera ekarri du, bereziki energia eta erregaien hornidurretan.

- En gastos y servicios corrientes, la evolución ascendente del IPC supone un incremento de más de 2 millones de euros en las previsiones de gasto, especialmente en los suministros de energía y combustibles.

- Dirulaguntza eta transferentzietarako gastu-aplikazioek, iazko zenbatekoekin alderatuz, ia %15eko igoera jasan dute. Atal honetan sartzen dira dirulaguntza deialdiak, dirulaguntza zuzenak eta baita bestelako entitate eta administrazioei egin beharreko ekarpenak.

- Las aplicaciones de gasto destinadas a subvenciones y transferencias experimentan un incremento que roza el 15 % respecto al año anterior. Se incluyen en este apartado las convocatorias de subvenciones, las subvenciones directas y las aportaciones a otras entidades y administraciones.

- Inbertsioei dagokionez, iazko zenbatekoa igotzen da, besteak beste, aurreko urtetatik datozen proiektu plurianualei kabida emanez:

- En cuanto a las inversiones, se consigue aumentar la cuantía del año pasado, dando cabida a los proyectos plurianuales procedentes de años anteriores:

- Pontikako garajeak (1.000.000)

- Garajes de Pontika (1.000.000)

- Gaztañoko igogailua (520.000)

- Ascensor de Gaztaño (520.000)

- Beraun kaleko berrurbanizazioa (520.000)

- Reurbanización de la calle Beraun (520.000)

- Gabierrotako pasealekuko interbentzioa (800.000)

- Intervención en el paseo Gabierrota (800.000)

- Agustinetako lanbide sortzaileen poloa (1.075.000)

- Polo de industrias creativas de Agustinas poloa (1.075.000)

- Gamon ikastetxeko 2. estalpea, hiltegia berritzeko proiektua, Barandiaran Parkeko deskontaminazioa,...(400.000)

- 2ª cubierta en el centro escolar Gamón, proyecto de reforma del edificio del matadero, Barandiaran Parkeko deskontaminazioa,... (400.000)

- Ingurumen departamentuan ia 580.000 euroko inbertsio proiektuak aurreikusten dira

- En el departamento de Medio Ambiente se contemplan proyectos de inversión de cerca



(LED argiteria, energia berriztagarriak, de 580.000 euros (alumbrado LED, energías komunitate energetikoak...), Next Generation renovables, comunidades energéticas...) Funtsek finantzatuta. financiados a cargo de Fondos Next Generation.

- Hiri Mantenuan ere Next Generation Funtsek finantzatuta 709.000 eurora arteko inbertsioak aurreikusten dira: ur-hornidura eta saneamendu sareen digitalizaziorako. Departamentuko gastu arruntei dagokionez, KPIaren igoerak Udaleko zerbitzu-kontratu esanguratsuenetan (kale garbiketa, eraikinen garbiketa eta hondakinen bilketa) izango duen eragina kontuan hartu da.
  - En Mantenimiento Urbano, también con financiación de Fondos Next Generation, se prevén inversiones de hasta 709.000 euros para la digitalización de las redes de abastecimiento de agua y de saneamiento. En cuanto al gasto corriente del departamento, se ha previsto la repercusión del incremento del IPC en los contratos de servicios más significativos del Ayuntamiento (limpieza viaria, limpieza de edificios y recogida de residuos).
- Aniztasunean %0,7ko gutxieneko gastu maila berretsi da. - En Diversidad se confirma el nivel mínimo de gasto del 0,7 %

ALKATEA

Aizpea Otaegi Mitxelena

**Sinaduren laburpena / Resumen de firmas****Titulua / Título:**

01. Alkatearen memoria2023.pdf

Sinatzailea 1 / Firmante 1: AIZPEA OTAEGI MITXELENA - 44137736T  
Data / Fecha: 2022/11/18 17:40:10



## 2.- SAIL ETA AZPISAILETAKO MEMORIAK MEMORIAS ÁREAS Y SUBÁREAS

ART. 6, 3 E  
21/2003



ERRETERIA  
UDALA

A  
P  
R  
E  
S  
U  
P  
U  
E  
S  
T  
O  
S  
K  
O  
N  
T  
U  
A  
K

2023



**2023KO AURREKONTUA**

**MEMORIA**

**SAILA / AZPISAILA:**

**GIZA BALIABIDEAK**

Memoria honen xedea da I. Kapituluko eta Giza Baliabideetako departamentuaren gastu eta sarrera aurrekontu proiektuaren ezaugarri nagusien azaltzea, eta bereziki aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta sartu diren berrikuntzak azaleratzea.

Memoria hau I. Kapituluko memoriarekin osatu behar da.

**Gastuen egoera:**

2023ko Aurrekontuan Pertsonal gastuei dagokien I. Kapituluko zenbatekoa 23.420.000 eurokoa da, Udal Aurrekontuaren %37,13ri dagokiona.

Aipatutako I. Kapituluko 2023ko ekitaldian %4,50eko hazkundera du, 2022ko aurrekontuarekin alderatuz gero. Honek kopuruari dagokionez 1.010.000 eurori dagokio. Bi ekitaldiak alderatuta I. Kapituluko Aurrekontu osoaren gainean duen pisua berdintsua da, eta esan liteke 2023an zerbait gutxitu egiten dela (2022: %39 eta 2023: %37,13).

Hazkunde honen arrazoiak ezberdinak dira, eta nagusienak dira aurreikusi den %3,50eko soldata igoera (Estatuko Aurrekontu Orokorretako Lege Proiektuaren aurreikuspenaren baitan), gizarte-segurantzako kotizazioak handitzea, egonkortze-prozesuetatik datozen konpentsazioak aurreikustea, bai eta departamentu batzuk indartzea ere, edo zenbait plaza eta lanpostu birsailkatzea, egiten ari den antolaketa-azterketaren ondorioz, zerbitzu publikoak emateko orduan eraginkorragoa izango den udal bat aldera.

Pertsonalaren ordainsarien ustezko igoera bat aurreikusi da, %3,50ekoa, 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorretako Legearen Proiektuak aurreikusitakoaren arabera. Zenbateko zehatzak

**PRESUPUESTO 2023**

**MEMORIA**

**ÁREA / SUBÁREA:**

**RECURSOS HUMANOS**

La presente memoria tiene por objeto recoger las principales características del proyecto de presupuesto de gasto e ingreso del Capítulo I, y del departamento de Recursos Humanos, y en especial, mencionar las novedades introducidas en comparación del presupuesto anterior.

La presente memoria debe completarse con la Memoria del Capítulo I.

**Estado de gastos:**

El Capítulo I relativo a los Gastos de Personal del Presupuesto 2023 asciende a 23.420.000 euros, lo que supone el 37,13 % del Presupuesto Municipal.

En el ejercicio 2023, el citado Capítulo I experimenta un incremento del 4,50 %, en comparación con el Presupuesto del ejercicio 2022, que corresponde al importe de 1.010.000 euros, si bien en ambos ejercicios el peso del Capítulo I en comparación con el montante total del Presupuesto es parecido, incluso en el 2023 algo inferior (2022: 39 % y 2023: 37,13 %).

Los motivos del incremento son diversos, principalmente el incremento retributivo del 3,50 % previsto para el ejercicio (en base a las previsiones del Proyecto de Ley de Presupuestos Generales del Estado), incremento de las cotizaciones de la seguridad social, la previsión de las compensaciones procedentes de los procesos de estabilización, así como el refuerzo de algunos departamentos, o la reclasificación de una serie de plazas y puestos de trabajo como consecuencia del análisis organizativo que se está llevando a cabo, al objeto de lograr un Ayuntamiento más eficiente en la prestación de los servicios públicos.

Se ha previsto un posible incremento salarial de las retribuciones del personal del 3,50 %, en atención a las previsiones del Proyecto de Ley de Presupuestos Generales del Estado





lanpostu bakoitzari dagozkion ordainsarrietan jaso dira, eta beti ere, Legearen onarpena baldintzatuta, eta Udalbatzak dagokion akordioa hartu beharko du aplikatu ahal izateko.

2023, que ha incluido dentro de los conceptos retributivos de cada puesto de trabajo, si bien su aplicación queda condicionada a la aprobación de la Ley, y a que se adopte el correspondiente acuerdo del Pleno.

Aldaketa nagusienak jaso dituzten gastu programak hurrengoak dira:

Los programas de gasto con modificaciones más significativas son los siguientes:

**Antolaketa alorra:**

**Ámbito de Organización:**

***221.00 Gastu Programa.- Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk***

***Programa de gasto 221.00.- Otras prestaciones económicas a favor de empleados públicos***

221.00 gastu programan jeitsiera garrantzitsu bat gertatzen da, %56,34koa, aurreko ekitaldiarekin konparatuz gero (400.000 euro).

En el programa de gasto 221.00 se produce una disminución significativa, el 56,34 %, en comparación con el ejercicio anterior (400.000 euros).

Zehazki, aurre-erretiro pizgarriei dagokion gastu aplikazioa 2022. ekitaldiarekin alderatuta jeitsi egiten da, lege debekua baitago aurre-erretiro pizgarri hauek ordaindu ahal izateko.

En concreto, corresponde a la aplicación presupuestaria de gasto de los incentivos por jubilación anticipada, al resultar una prohibición legal para proceder a su abono.

***920.00 Gastu Programa.- Administrazio Orokorra***

***Programa de gasto 920.00.- Administración General***

920.00 gastu-programan igoera nabarmena gertatu da, orain arte departamentu izan den Zerbitzu Juridikoa, Idazkaritza Orokorren barruan sartu delako. Hala ere, igoera hori bat dator 920.50 gastu-programaren murrizketarekin, eta, beraz, ez dago benetako gastuaren gehikuntzarik, ordainsarien eta gizarte-segurantzako kotizazioen igoera orokorrak eragindakoa baino handiagoa.

En el programa de gasto 920.00 se produce un incremento significativo como consecuencia de incluir el Servicio Jurídico, hasta ahora departamento, dentro del departamento de Secretaría General. Sin embargo, el mismo se corresponde con la disminución del programa de gasto 920.50, por lo que no existe un incremento de gasto real, más allá del ocasionado por el incremento general de las retribuciones y las cotizaciones a la seguridad social.

***920.30 Gastu Programa.- Giza Baliabideak***

***Programa de gasto 920.30.- Recursos Humanos***

920.30 gastu-programan % 13,73ko igoera gertatu da, egonkortze-prozesuengatik konpentsazio ekonomikoen aurreikuspenaren, ordezkapen-poltsaren igoeraren eta departamentuko langileen errefortzuaren ondorioz (aholkulari juridikoen dotazioa sartu da).

En el programa de gasto 920.30 se produce un incremento del 13,73 %, como consecuencia de la previsión de las compensaciones económicas por los procesos de estabilización, el incremento de la bolsa de sustituciones, y el refuerzo de personal en el departamento (se incluye una dotación de Asesor/a Jurídico/a).

Ordezkapen-poltsari dagokion gastuaren

La aplicación presupuestaria de gasto



aurrekontu-aplikazioa 275.217,45 eurokoa da.

Egonkortze-prozesuetatik eratorritako konpentsazio ekonomikoei dagokien zenbatekoa (330.000 euro) 20/2021 Legearen 6. eta 8. gehigarrien arabera deitutako hautaketa-prozesuetako konpentsazio posibleen % 60ri dagokio, hau da, lehiaketa bidez deitutako hautaketa-prozesuei, eta kuantifikazio hori Udal Kontuhartzaitzak adierazitako irizpideari jarraiki sartu da.

Hautaketa-prozesuei dagozkien gastuen aplikazioa (2. kapitulua) ere handitu egingo da, 2023ko ekitaldian aipatutako egonkortze-prozesuei aurre egin beharko baitzaie.

#### **Lurraldea alorra:**

Lurralde-eremuan, gastu-programek ez dute gehikuntza edo murrizketa nabarmenik. Hala badagokio, nabarmendu behar da sailen antolaketa-azterketaren ondorioz egindako aldaketetan oinarrituta, zenbait plaza eta lanpostu birsailkatu direla, eta, ondorioz, gastu-programa batzuk gehitu egin direla. 151.10 Hirigintza gastu-programan, igoera Administrari Laguntzaile plaza baten ordezkari Administrari bat jartzearen ondorio da, 170.00 Ingurumena gastu-programan, C-2 taldeko Basozain plaza C-1era birsailkatu delako, eta 151.20tik 151.26ra bitarteko gastu-azpiprogrametan, Hiri Mantentzeko zerbitzuei dagozkienetan, Zerbitzuko arduradun plaza desberdinak sortu direlako, guztiak C-1 taldean, eta plaza berriren bat sartu delako zerbitzua indartzeko.

#### ***241.00 Gastu Programa.- Enpleguaren sustapena***

241.00 gastu programan 2022. urtean jasotako zenbatekoak berriro ere mantentzen dira, dagokion igoera aplikatuta.

Enplegu planei dagokien kreditua hurrengo moduan banatuko da: 749.078 euro I. Kapituluan,

correspondiente a la bolsa de sustituciones asciende a 275.217,45 euros.

El importe correspondiente a las posibles compensaciones económicas provenientes de los procesos de estabilización (330.000 euros), corresponde al 60 % de las posibles compensaciones de los procesos selectivos convocados en base a las disposiciones adicionales 6 y 8 de la Ley 20/2021, es decir, procesos selectivos convocados mediante concurso, y dicha cuantificación se ha incluido siguiendo el criterio marcado por la Intervención Municipal.

La aplicación de gastos correspondiente a los procesos selectivos (cap. 2) también se ve incrementada, dado que durante el ejercicio 2023 se tendrá que hacer frente a los citados procesos de estabilización.

#### **Ámbito de Territorio:**

En el ámbito de territorio los programas de gasto no tienen incrementos ni disminuciones significativas. En su caso, cabe destacar que en base a las modificaciones llevadas a cabo como consecuencia del análisis organizativo de los departamentos, se ha reclasificado una serie de plazas y puestos de trabajo, resultando un incremento en algunos programas de gasto. En el programa de gasto 151.10 Urbanismo, el incremento responde a la sustitución de una plaza de Auxiliar Administrativo por una de Administrativo, en el programa de gasto 170.00 Medio Ambiente, al haber sido reclasificada la plaza de Guardabosques del grupo C-2 al C-1, y en los subprogramas de gasto 151.20 a 151.26 correspondientes a los diferentes servicios de Mantenimiento Urbano, al haber creado diferentes plazas de Encargado de Servicio, todas ellas en el grupo C-1, e incluir alguna nueva plaza para reforzar el servicio.

#### ***Programa de gasto 241.00.- Fomento de Empleo***

En el programa de gasto 241.00 se vuelen a mantener los importes consignados en el ejercicio 2022, con el incremento correspondiente

El crédito correspondiente a los planes



udaletik lan kontratazioak zuzenean egiteko, eta 143.000 euro, IV. Kapituluaren, Enplegu eremuan Oarsoaldeari egin behar zaion ekarpenerako.

Aurrekoaz gain, 8.400 euro GUREAK elkarteari dirulaguntza zuzena emateko, desgaitasunik duten pertsonen lan merkaturatzea sustatzeko.

Ez da inolako gastu-aplikaziorik jasotzen TAO eta GRUA birkokatzearen planetarako, 2022ko azaroan amaitu baitziren.

de empleo se distribuye de la siguiente forma: 749.078 euros en el Capítulo I, al objeto de realizar contrataciones laborales de personal directamente desde el Ayuntamiento, y 143.000 euros en el Capítulo IV, en concepto de aportación a Oarsoaldea en materia de Empleo.

Además de lo anterior, se prevén 8.400 euros en subvención directa a GUREAK para impulsar la inserción laboral de personas con discapacidad.

No se recoge aplicación de gasto alguna para los planes de recolocación de la OTA y la Grúa, al haber finalizado los mismos en noviembre de 2022.

#### **Herritarrak alorra:**

#### ***230.00 Gastu Programa.- Gizarte zerbitzuetako administrazio orokorra***

230.00 Gizarte Zerbitzuen Administrazio Orokorra eta 231.10 Etxeko Laguntza Zerbitzua gastu-programetan igoera bat gertatu da antolaketa-analisiaren ondoriozko aldaketengatik. Horren ondorioz, Administrazio Laguntzailearen plazak Administrazio bihurtzen ari dira pixkanaka, eta AP taldeko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko plazak C-2 taldera birsailkatu dira.

Azkenik, nabarmendu gastu programa guztiek %5 edo 7ko batzbesteko hazkundera dutela, 2023ko soldata igoeraren kreditua (%3,50) sartu izanaren ondorioz, gizarte segurantzako kuotak igo izanaren ondorioz, eta giza baliabideekin harremana duten bestelako aldaketa txikien ondorioz.

Plantila organikoan eta lanpostuen zerrendan aurreikusitako aldaketak, bere memorietan jaso dira.

#### **Sarreraren egoera:**

2021 eta 2022. ekitaldiko likidazioaren datuak eta sarrerak izandako bilakaera kontuan izanik kalkulatu dira.

Aldi berean 2023ko ordenantzen inguruan

#### **Ámbito de Ciudadanía:**

#### ***Programa de gasto 230 y 231 del ámbito de los Servicios Sociales***

En los programas de gasto 230.00 Administración General de los Servicios Sociales, y 231.10 Servicio Ayuda Domicilio se produce un incremento por las modificaciones derivadas del análisis organizativo, resultando que las plazas de Auxiliar Administrativo/a se están reconvirtiendo paulatinamente en Administrativo/a, y la reclasificación de las plazas del Servicio de Ayuda a Domicilio del grupo AP al C-2.

Por último, mencionar que todos los programas de gasto sufren un incremento medio de un 5 a 7 %, como consecuencia de incluir el crédito correspondiente al incremento retributivo 2023 (3,50 %), el incremento de las cuotas de seguridad social y otras pequeñas variaciones relativas al personal.

Las modificaciones previstas en la plantilla orgánica y relación de puestos de trabajo vienen a recogerse en sus memorias correspondientes.

#### **Estado de ingresos:**

Han sido calculados tomando como base los datos de liquidación del ejercicio 2021 y 2022.

También se han tenido en cuenta los

**ERRETERIAKO UDALA**  
Giza Baliabideak



**AYUNTAMIENTO DE  
ERRETERIA**  
Recursos Humanos

hartu diren akordioak kontuan hartu dira.

Transferentzia edo diru-laguntzei dagokienez, hurrengoak adierazi behar dira, dagozkion gastuekin batera:

**Enplegua:**

Diru-sarrerak: 460.000€

Gastuak: 900.478€

**Prestakuntza**

Diru-sarrerak: 10.000€

Gastuak: 90.000€

Aipatu behar da San Markos Mankomunitatetik etorritako sarrera (16.500 euro) sartu dela Udaleko Idazkaritza Nagusiari idazkaritza-funtzioak esleitzeagatik, eta egonkortzeko hautaketa-prozesuetan izena emateko tasari dagokion diru-sarreraren aurreikuspena (40.000 euro) ere.

acuerdos adoptados en relación a las ordenanzas fiscales del ejercicio 2023.

En relación a las transferencias o subvenciones previstas cabe mencionar las siguientes, junto a sus correspondientes gastos:

**Empleo**

Ingresos: 460.000€

Gastos: 900.478€

**Formación**

Ingresos: 10.000€

Gastos: 90.000€

Señalar que se ha incluido el ingreso proveniente de la Mancomunidad de San Marcos (16.500 euros) por motivo de la asignación de las funciones de Secretaría a la Secretaria General del Ayuntamiento, y la previsión de ingresos por las tasa correspondiente a las inscripciones en los procesos selectivos de estabilización (40.000 euros).

Erreterian, sinadura egunean.

En Erreteria, el día de la firma.

Sin.- M<sup>a</sup> Jose Sanchez  
(GGBBko arduradun teknikoa)

Sin.- Alazne Korta  
Zinegotzi Delegatua



**Sinaduren laburpena / Resumen de firmas****Titulua / Título:**

2023KO AURREKONTUAREN MEMORIA

**CSV/EKS:**

SINAc68a2df3-1e1c-4c6d-8314-3ec29ebf98a8

Sinatzailea 1 / Firmante 1: MARIA JOSE SANCHEZ PLAZA - 72473913Q  
Data / Fecha: 2022/11/15 10:00:46

Sinatzailea 2 / Firmante 2: MIREN ALAZNE KORTA ZULAIKA - 15956145X  
Data / Fecha: 2022/11/15 10:06:40



**2023KO AURREKONTUA**  
**MEMORIA**

Memoria honen xedea da Ogasuna eta Garapen Ekonomiko Sailaren gastu eta sarrera aurrekontu proiektuaren ezaugarri nagusienak azaltzea, 2022ko aurrekontuarekin alderatuz jaso diren berrikuntzak azpimarratuz.

Gastu-aurrekontuari dagokionez, Ogasun Departamentuaren partiden ohiko proiektuen jarraipena erakusten dute. Garapen ekonomikoari dagokionez, Errenteriako tokiko ehun ekonomikoa eutsi eta bultzatzeko aurreikusitako partida-sailak beste behin ere ziurgabetasun handikoa izango den urteari aurre egiteko prestatu dira.

Sarrerei dagokionez, hainbat dira aipatu beharreko gaiak: Lehenik eta behin, Udalaren sarrera-iturri nagusia den Udalen Finantzaziorako Foru Funtzak %2ko igoera jasango duela aurreikusten da; bigarrenik, Europar Batasunean iturria duten Next Generation Funtsek presentzia nabarmena hartzen dute 1.200.000 euro baino gehiagoko diru-sarrera aurreikusten delarik (hots, aurrekontu osoaren ia % 2a) eta azkenik, aurreikusitako zorpetzeak Aldundiak 2023an Errenteriako Udalarentzat ezarritako defizit helburua gainditu egiten du.

**1) OGASUNA**

**Gastuen egoera:**

Sartzen diren gastu programak hurrengoak dira:

931.00.- Kontabilitatea, administrazioa eta zergen ikuskaritza  
932.00.- Tributu sistemaren kudeaketa  
929.10.- Bake Epaitegia  
0100.00.- Zor publikoa

931.00.- Kontabilitatea, administrazioa eta zergen ikuskaritza

*Azterketa eta lan teknikoen* aurrekontu aplikazioan, 30.000 euro, barne kontrolerako lanetan

**PRESUPUESTO 2023**  
**MEMORIA**

La presente memoria tiene por objeto recoger las principales características del proyecto de presupuesto de gasto e ingresos del área de Hacienda y Desarrollo económico, haciendo especial hincapié en las novedades introducidas respecto al presupuesto de 2022.

En relación al presupuesto de gastos, las partidas del Departamento de Hacienda muestran la continuidad en los proyectos habituales. En cuanto a Desarrollo Económico, las partidas relativas a mantener y potenciar el tejido económico local de Errenteria, se han preparado para hacer frente a un año que, una vez más, se presenta con un alto nivel de incertidumbre.

En lo que respecta a los ingresos, son varios los aspectos a mencionar. En primer lugar, se ha previsto un incremento del 2% en la partida de ingresos más importante, el Fondo Foral de Financiación Municipal; en segundo lugar, los Fondos Next Generation financiados por la UE han entrado con fuerza, suponiendo más de 1.200.000 euros de ingresos (casi el 2% del presupuesto total) y, finalmente, la previsión de endeudamiento supera ligeramente el objetivo de déficit para Errenteria establecido por Diputación para el ejercicio 2023.

**1) HACIENDA**

**Estado de gastos:**

Los programas de gasto incluidos son los siguientes:

931.00.- Contabilidad, administración e inspección de tributos  
932.00.- Gestión del sistema tributario  
929.10.- Juzgado de Paz  
011.00.- Deuda pública

931.00.- Contabilidad, administración e inspección de tributos

La aplicación presupuestaria correspondiente a *Estudios y trabajos técnicos*, 30.000 euros, recoge

**ERRENTERIAKO UDALA**

Ogasuna eta Garapen ekonomikoa

**AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA**

Hacienda y Desarrollo económico

Kontuhartzaitza organoari laguntzeko zerbitzuen eta urtean zehar beharko diren bestelako laguntza teknikoaren kontratazioarako aurreikuspenak jasotzen dira .

932.00.- Tributu sistemaren kudeaketa

Aurreko urtetako bilakaeraren arabera aurreikusi da gastua.

929.10.- Bake Epaitegia

Aurreko urtetako bilakaeraren arabera aurreikusi da gastua.

011.00.- Zor publikoa

Udalaren finantza-gastua jasotzen du hitzartuak dituen mailegu ezberdinen amortizazio eta interesei dagokiena, sektore publiko edo sektore pribatuetako maileguetatik datozen ezberdinduz.

Hasierako aurrekontuetan horrela aurreikusten bazen ere, azken urtetan mailegu berriak kontratatu ez denez, zorpetzea eta, ondorioz, zorraren amortizazioari dagozkion zenbatekoak etengabe jaisten doaz. Interesei dagokien partidako aurreikuspenek, aldiz, erabat iraultzen duten orain arteko bilakaera ia % 75ean handitzen baitira, euribor erreferentzialaren tasaren igoera dela eta. apalaren ondorioz.

**Sarreraren egoera:**

Zerga, tasa eta prezio publikoengatik aurreikusitako sarrerak kalkulatu dira, orokorrean, 2021 eta 2022eko likidazioetatik eratorritako zenbatekoen bilakaeratik, baita 2023ko ordenantza fiskalak izozteari buruz hartutako akordioa kontuan hartuta.

Bereziki, Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga (HBGZ) jasotzen duen aplikazioaren zenbatekoak aurreko ekitaldietako maila ia erabat berreskuratzen du, zergaren araudi berria aplikatzen hasi garen heinean.

*Tributu kontzertatu*etako *parte-hartze*aren aplikazioari dagokionez Aldundiak egindako zenbatespenak kontuan hartu dira. Hauen arabera

la consignación para la contratación de los servicios de colaboración con el órgano Interventor para las labores de control interno, así como algún otro trabajo de asistencia técnica que sea necesario durante el año.

932.00.- Gestión del sistema tributario

Se ha previsto el gasto en función de la evolución de ejercicios precedentes.

929.10.- Juzgado de Paz

Se ha previsto el gasto en función de la evolución de ejercicios precedentes.

011.00.- Deuda pública

Se recoge el gasto financiero relativo a la amortización e intereses de los diferentes préstamos concertados por el Ayuntamiento, distinguiendo entre préstamos provenientes del sector público y del sector privado.

Aunque en los presupuestos iniciales las previsiones fueran otras, en los últimos ejercicios no se ha contratado deuda, por lo que tanto el endeudamiento como el importe correspondiente a la amortización de la misma siguen reduciéndose. Sin embargo, las previsiones relativas a los intereses revierten completamente la evolución descendente con un incremento de casi el 75%, a consecuencia de la subida de la tasa del referencial euribor.

**Estado de ingresos:**

Los ingresos previstos en impuestos, tasas y precios públicos se han calculado, como regla general, tomando como base las liquidaciones de 2021 y 2022, así como los acuerdos adoptados en relación a la congelación de las ordenanzas fiscales para el ejercicio 2023.

Se ha previsto que la aplicación que recoge el Impuesto sobre el Incremento de valor de los terrenos de naturaleza urbana (IVTNU) recupere parcialmente los niveles de ejercicios anteriores, una vez puesta en marcha la nueva regulación del impuesto.

En lo que respecta a la aplicación de *Participación en tributos concertados* se han reflejado las previsiones de la Diputación , que estima en

**ERRENTERIAKO UDALA**

Ogasuna eta Garapen ekonomikoa

**AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA**

Hacienda y Desarrollo económico

Errenteriako Udalak 32.141.000 euro jasoko dituela aurreikusi da, hau da, 2022ko hasierako aurrekontuaren aurreikuspenekiko % 6,46ko igoera.

Azkenik, zorpetzeko finantza eragiketa bat aurreikusi da, 2.900.000,00 eurokoa, aurrekontuak jasotzen dituen inbertsio garrantzitsuenak finantzatzeko. Zenbateko horrek, Aldundiak 2023rako Errenterirako onartutako defizit muga gainditzeak suposatzen du. Edonola ere, mailegu eragiketak adostuko dira bestelako sarreren bilakaera edo inbertsioen gauzatze maila errealdaren arabera.

Kontuan hartuz, 2023rako ere arau fiskalak bertan behera geratu direla, likidazioan defizit muga gainditu dela egiaztatuko balitz, plan ekonomiko-finantzario bat egin eta onartu beharko litzateke, kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna izateko soilik.

32.141.000,00 euros la aportación a recibir por el Ayuntamiento de Errenteria. Este importe supone un incremento del 6,46% respecto a la previsión inicial de 2022.

Finalmente, se ha previsto una operación financiera de endeudamiento de 2.900.000,00 euros para financiar las inversiones más significativas del presupuesto. Este importe supera el límite de déficit impuesto a Errenteria por la Diputación para 2023. En todo caso, se concertarán operaciones de crédito en función de la evolución de otros ingresos o el grado de ejecución de real de las inversiones.

Teniendo en cuenta que también en el ejercicio 2023 se han dejado sin efecto las reglas fiscales, si en la liquidación del ejercicio se verificase que se ha superado el objetivo de déficit, sería necesario elaborar y aprobar un plan económico-financiero, pero únicamente como herramienta de gestión y planificación a largo plazo.

**2) GARAPEN EKONOMIKOA****Gastuen egoera:**

Sartzen diren gastu programak hurrengoak dira:

431.00.- Merkataritza

433.00.- Enpresa garapena: Oarsoaldea

439.00.- Ekonomia soziala

**431.00.- Merkataritza**

Gastu-programa honetako aplikazioen helburua tokiko ehun ekonomikoari (merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuei) eutsi eta bultzatzea, eta kontsumitzaileen konfiantza sendotzea da. Aurten, gastu-programa honetara mugitu dira tokiko ekosistema ekonomikoaren garapena bultzatu eta dinamizatzeari dagozkion partidak, hala nola: lehen sektoreari laguntzea (40.000 €), enpresei bideratutako dirulaguntzen lerroa (400.000 €) eta proiektuak eta dinamizazio ekintzak bideratzeko partida (40.000 €).

**2) DESARROLLO ECONÓMICO****Estado de gastos:**

Los programas de gasto incluidos son los siguientes:

431.00.- Comercio

433.00.- Desarrollo empresarial: Oarsoaldea

439.00.- Economía social

**431.00.- Comercio**

El objetivo es potenciar y mantener el tejido económico local (comercio, hostelería y servicios), así como reforzar la confianza de la población consumidora. Este año, se han trasladado a este programa de gasto las partidas relativas a la potenciación y dinamización del desarrollo del ecosistema económico local, como son: la promoción del sector primario (40.000 €), línea de subvenciones a empresas (400.000 €) y una partida que contiene gastos relativos a proyectos y acciones dinamización(40.000 €).



**ERRENTERIAKO UDALA**

Ogasuna eta Garapen ekonomikoa

**AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA**

Hacienda y Desarrollo económico

Gastu-programa honetan ere, urtero bezala, Errenkoalde merkatari-elkartearen dirulaguntza izendunari dagokion aurrekontu-aplikazioa ere jasotzen da.

**433.00.- Enpresa garapena**

Hemen ere jasotzen da Oarsoaldea S.A. menpeko sozietate publikoaren urteko kudeaketa planaren finantzaketarako Udalaren ekarpena. Partida honek, aurreko ekitaldiaren aldean, ia % 10eko igoera jasotzen du, 2022 ekitaldiko exekuzioan zehar jasandako igoera partzialak bere gain hartzeko.

**439.00.- Ekonomia soziala**

Gastu-programa honen baitako aurrekontu aplikazio guztiak ekonomia sozialeko eredu berri baten sustapen eta garapenera bideratuak daude. Aurreko ekitaldian bezala, partidak zein zenbatekoak mantentzen dira.

*Humanitate Digitala: UEU dirulaguntza* aurrekontu aplikazioak 18.000,00 euro jasotzen du UEUri eman beharreko dirulaguntza izenduna gizarte zientzietan teknologiaren aplikazioaren arloan ikerketa proiektuak gara ditzan.

*KoopFabrika garatu* aurrekontu aplikazioak jasotzen du Agintaldi planeko 6.1.1. *KoopFabrika, Kooperatibagintzan eta gizarte berrikuntzan oinarritutako enpresa-proiektuak sortzeko ekimenari segida ematea* proiektuaren 2023rako aurreikuspena. Datorren urteko helburua ekonomia sozialaren arloan proiektuak bultzatzen jarraitzea da.

*TEKS Torrekua teknologia* aurrekontu aplikazioak 18.000,00 euro aurreikusten ditu, Torrekuan berrikuntza teknologikoaren inguruan proiektuak garatuko dituen izen bereko elkartearen alde.

**Sarrerren egoera:**

Gastu-programa hauetara lotutako sarrera aplikazio bakarra aurreikusten da: Lanbide sortzaileen poloa kokatzeko asmoz Agustinaseko eraikina eraberritzeko Eusko Jaurlaritzak emango duen dirulaguntzaren 2023rako 20.000 euroko zatia.

Halere, 2023an zehar kanpo-finantzaketa lerroak aktiboki bilatu eta aztertzen jarraituko dugu, bereziki Next Generation europar funtsek

Se recoge también, como viene siendo habitual, la aplicación presupuestaria correspondiente a la subvención nominativa a la Asociación de comerciantes Errenkoalde.

**433.00.- Desarrollo empresarial**

Este programa de gasto recoge la aportación que el Ayuntamiento realiza a la sociedad pública dependiente Oarsoaldea S.A. para la financiación de su plan de gestión. Esta partida presenta un incremento del casi 10% para absorber los incrementos parciales sufridos en la ejecución del ejercicio 2022.

**439.00.- Economía social**

Todas las aplicaciones presupuestarias de este programa giran en torno al fomento y desarrollo de un nuevo modelo de economía social. Respecto al ejercicio anterior se mantienen tanto las partidas como los importes.

La aplicación presupuestaria *Humanidad Digital: subvención UEU* recoge 18.000,00 euros para la subvención nominativa prevista para que la UEU desarrolle y promueva proyectos de investigación en el ámbito de aplicación de la tecnología en las ciencias sociales (Humanidad Digital).

La aplicación presupuestaria *Desarrollo de KoopFabrika* recoge la previsión para 2023 del proyecto del Plan de Mandato 6.1.1. *KoopFabrika, iniciativa para la creación de proyectos empresariales basados en el cooperativismo y la innovación social*. El objetivo el año que viene es continuar impulsando proyectos en el marco de la economía social.

También se recoge la aplicación presupuestaria *TEKS tecnología Torrekua* con 18.000,00 euros para la subvención nominativa a la asociación homónima que desarrollará proyectos de innovación tecnológica en Torrekua.

**Estado de ingresos:**

Se prevé una única aplicación de ingresos asociada a estos programas de gasto: la subvención de 20.000 euros concedida para 2023 por el Gobierno Vasco para la rehabilitación del edificio de Agustinas, con el objetivo de que acoja el polo de industrias creativas.

En todo caso, durante 2023 se seguirá trabajando en la búsqueda activa de líneas de financiación externas, en especial dentro de las convocatorias

**ERRETERIAKO UDALA**

Ogasuna eta Garapen ekonomikoa

**AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA**

Hacienda y Desarrollo económico

finantziatutako deialdien artean.

financiadas por los fondos europeos Next  
Generation.

Errenterian, sinaduraren datan.

Garapen Ekonomikoko Zinegotzi Delegatua

Ogasuneko Zinegotzi Delegatua

Eneko del Amo Jiménez

Garazi López de Etxezarreta

Ogasun eta Garapen ekonomikoko arloko arduradun teknikoa

Irene Soto Cotorro

**Sinaduren laburpena / Resumen de firmas****Titulua / Título:**

03\_Memoria\_Ogasuna eta garapen ekonomikoa 2023.pdf

Sinatzailea 1 / Firmante 1: IRUNE SOTO COTORRO - 44973525S

Kontuhartzailea

Data / Fecha: 2022/11/15 14:13:24

Sinatzailea 2 / Firmante 2: GARAZI LOPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI - 72465218S

Data / Fecha: 2022/11/15 14:23:44

Sinatzailea 3 / Firmante 3: ENEKO DEL AMO JIMENEZ - 78748785M

Data / Fecha: 2022/11/16 12:21:19



**2023KO AURREKONTUA**

**PRESUPUESTO 2023**

**MEMORIA**

**MEMORIA**

**AZPISAILA:Hirigintza**

Memoria honen xedea da **Hirigintza azpisailaren** gastu eta sarrera aurrekontu proiektuaren ezaugarri nagusienak azaltzea, eta bereziki aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta sartu diren berrikuntzak azaleratzea.

**SUBÁREA:Urbanismo**

La presente memoria tiene por objeto recoger las principales características del proyecto de presupuesto de gasto e ingreso del **subárea de Urbanismo**, y en especial, mencionar las novedades introducidas en comparación del presupuesto anterior.

**GASTUEN EGOERA:**

Sartzen diren gastu programak hauek dira:

- 134.00 Programa.- Hiri-mugikortasuna.**
- 150.00 Programa.- Materiala, hornidurak eta bestelakoak.**
- 151.10 Programa.- Hirigintza: plangintza, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintza-diziplina.**
- 152.20 Programa.- Eraikuntzen kontserbazioa eta birgaitzea.**
- 153.20 Programa.- Bide publikoen zolaketa.**
- 171.00 Programa.- Parke eta lorategiak.**
- 323.00 Programa.- Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeen eta hezkuntza bereziko ikastetxeen funtzionamendua**
- 333.30 Programa.- kultur ekipamenduak.**
- 342.10 Programa .- Kirol instalazio nagusiak**
- 433.00 Programa .- Enpresa-garapena**
- 933.00 Programa.- Ondarearen kudeaketa.**

**ESTADO DE GASTOS:**

Los programas de gasto incluidos son los siguientes:

- Programa 134.00.- Movilidad urbana.**
- Programa 150.00.- Material, suministros y otros.**
- Programa 151.10.- Urbanismo: planeamiento, gestión, ejecución y disciplina urbanística.**
- Programa 152.20.- Conservación y rehabilitación de la edificación.**
- Programa 153.20.- Pavimentación de las vías públicas.**
- Programa 171.00.- Parques y jardines.**
- Programa 323.00.- Funcionamiento de centros docentes de enseñanza infantil y primaria y educación especial.**
- Programa 333.30.- Equipamientos culturales.**
- Programa 342.10.- Instalaciones deportivas principales**
- Programa 433.00.- Desarrollo empresarial**
- Programa 933.00.- Gestión de Patrimonio.**

ERRETERIAKO UDALA  
Hirigintza



AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA  
Urbanismo

**13400 Programa.- Hiri-mugikortasuna.**

Partida. GAZTAÑO HIRI IGOGAILUAREN  
OBRA(ULO):

.....520.000,0 0 euro.

Maria de Lezo kaletik, hirigunea eta Gaztaño auzora elkartzeko igogailua eta pasabideak eraiki nahi dira.

**Programa 13400.- Movilidad urbana.**

Partida. OBRA ASCENSOR PÚBLICO GAZTAÑO  
(PMS):

.....520.000,00 euros.

Se trata de la ejecución de un ascensor y pasarelas para unir el centro urbano, desde María de Lezo kalea, con el barrio de Gaztaño.

**150.00 Programa.- Materiala, hornidurak eta bestelakoak.**

Partida. BULEGO MATERIALA...2.000,00 euro.

begira, bizikidetzeta eta jarduerak sustatzeko partida hain zuzen ere. Bertatik hornitzen ari gara 2023rako aurreikusitako jardueren eta gaien gastuak. Zenbateko gehienak iazko aurrekontuan bezala mantenduko dira.

Partida horren proposamen kuantitatiboa horrela geratuko litzateke.

Kultur Aniztasuna: Sentsibilizatzeko Kanpainak: 61.800€

Harrera eta hezkuntza proiektua : 40.000€

Kulturarteko bitartekaritza programa: 10.000€

Dirulaguntzak (lehia bidez) : kultura arteko hezkuntza: 26.000€

*Dirulaguntza (zuzena): Ozzinema 40.000€*

Dirulaguntza (zuzena): Zurrumurruen aurkako sarea : 1.000€

Dirulaguntza (zuzena) Sos Arrazakeria: 10.000€

**327.00 Programa.-** (Kultur aniztasuna: dietak eta bulegoko materiala)

Dieta-gastuak 200€ ordaindu dira, eta beste 200€ gastatu dira bulegoko materialean. Aurten, zenbateko horiei eustea proposatu da.

**230.20 Programa.-** (Nazioart.Lank. Euskal Fondoa: proiektuak), (Nazioarteko Lankidetzeta: Euskal Fondoa kuota), (Dirulaguntzak: Larrialdi eta Ekintza Humanitarioa) eta (Dirulaguntzak: Nazioarteko Lankidetzeta)

destinada a fomentar la convivencia y las actividades de cara a la diversidad cultural. Desde allí estamos suministrando los gastos de las actividades y materiales previstos para el año 2023. La mayoría de los importes se mantendrán como en el presupuesto del año pasado.

La propuesta cuantitativa de dicha partida quedaría de esta manera.

Diversidad Cultural: Campañas de Sensibilización: 61.800€

Proyecto educativo y de acogida: 40.000€

Programa de mediación intercultural: 10.000€

Subvenciones (mediante concurrencia competitiva): educación entre culturas: 26.000€

*Subvención (directa): Ozzinema 40.000€*

Subvención (directa): Asociación anti-rumores ZAS: 1.000€

Subvención (directa): Sos Racismo: 10.000€

**327.00 Programa.-** (Diversidad Cultural: dietas y material de oficina)

Se han cubierto los gastos de dietas con 200€, y material con otros 200€ en esta partida y este año se propone mantener estas mismas cuantías.

**230.20 Programa.-** (Colab.Inter.Euskal Fondoa: proyectos), (Cooperación Internacional: cuota Euskal Fondoa), (Subvenciones: Emergencia y Acción Humanitaria) y (Subvenciones: Colaboración Internacional)





- Dirulaguntza (lehia bidez): Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeei: 100.000€ .
- Dirulaguntza (eskaeren arabera): Larrialdi eta Ekintza Humanitarioko aurrekontua: 35.000€ tara pasaz.
- Euskal Fondoa (zuzena): 32.000€ proiektuetarako eta 5.000€ kuotarako.

**Sarrerren egoera:**

2022ko ekitaldiko likidazio-datuak diru-sarrerren bilakaera oinarritzat hartuta kalkulatu dira.

Transferentzia edo diru-laguntzei dagokienez, hurrengoak adierazi behar dira, dagozkion gastuekin batera:

Diru-sarrerei dagokienez aurreikusi da 39.100€ jasoko direla 2022an diru-laguntzen deialdietatik. 9.700€ Gipuzkoako Foru Aldunditik, eta 19.400 € Eusko Jaurlaritzatik aniztasuna eta elkarbizitzarako eta 10.000 Bizikidetzeta gaietarako (gatazka eza), 327.10 gastu-programaren gainean (Bizikidetzeta sustatzea).

Errenterian, 2022ko azaroaren 14n

Kultur aniztasuneko, garapenerako lankidetzako eta giza eskubideen saileko arduradun teknikoa

Stua.: Samira Goddi Mendizabal

- Subvención (mediante concurrencia competitiva): Organizaciones Gubernamentales de Desarrollo: 100.000€.
- Subvención (por solicitud): presupuesto de Emergencia y Acción Humanitaria: pasando a 35.000€.
- Euskal Fondoa (directa): 32.000€ para proyectos y 5.000€ para cuota.

**Estado de ingresos:**

Los datos de liquidación del ejercicio 2022 se han calculado a partir de la evolución de los ingresos.

En relación a las transferencias o subvenciones previstas cabe mencionar las siguientes, junto a sus correspondientes gastos:

En cuanto a los ingresos se prevé percibir 39.100€ de las convocatorias anuales de subvenciones en el 2022. 9.700€ de la Diputación Foral de Gipuzkoa y 19.400€ del Gobierno Vasco sobre el programa de gasto 327.10 Convivencia y diversidad y 10.000€ Fomento de la Convivencia (resolución de conflictos).

En Errenteria, el 14 de noviembre de 2022

Kultur aniztasuneko, garapenerako lankidetzako eta giza eskubideen Zinegotzi Delekatua

Stua.: Jose Ramon Gurrutxaga Zubizarreta

**Sinaduren laburpena / Resumen de firmas****Titulua / Título:**

memoria 2023

Sinatzailea 1 / Firmante 1: SAMIRA GODDI MENDIZABAL - 72484510X  
Data / Fecha: 2022/11/14 11:44:40

Sinatzailea 2 / Firmante 2: JOSE RAMON GURRUCHAGA ZUBIZARRETA - 72426857H  
Data / Fecha: 2022/11/14 11:53:39



**ERRENTERIAKO UDALA**  
Kirolak



## 2023KO AURREKONTUA

### MEMORIA

#### SAILA / AZPISAILA: 1530 KIROLAK

Memoria honen xedea da Kiroletako Azpisailaren gastu eta sarrera aurrekontu proiektuaren ezaugarri nagusienak azaltzea, eta bereziki aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta sartu diren berrikuntzak azaleratzea.

#### Gastuen egoera:

Sartzen diren gastu programak hurrengoak dira:

- 340.00 Kirolaren Arloko Administrazio Orokorra
- 341.10 Kirola sustatu eta bultzatzea. Klubak (Kirol Federatua)
- 341.30 Kirola sustatu eta bultzatzea. Eskola Kirola
- 341.40 Kirola sustatu eta bultzatzea. Kirola denontzat (erabilerak eta kanpainak)
- 342.10 Kirol instalazioak. Instalazio nagusiak
- 342.20 Kirol instalazioak. Beste instalazio batzuk
- 342.30 Kirol instalazioak. Beste instalazio batzuk (kluben lokalak)

#### **340.00 Kirolaren Arloko Administrazio Orokorra Programa.**

Programa honetan sartzen dira azpisaileko langileen gastuak (I Kapituluak) eta azpisaileko bulegoaren gastu orokorrak, telefono kontsumoa eta bulego materiala bezalako partidak, esaterako.

#### **341.10 Kirola sustatu eta bultzatzea. Klubak (Kirol Federatua) Programa.**

Programa honetan sartzen dira klub federatuen kirola

## PRESUPUESTO 2023

### MEMORIA

#### ÁREA / SUBÁREA: 1530 DEPORTES

La presente memoria tiene por objeto recoger las principales características del proyecto de presupuesto de gasto e ingreso de la Subárea de Deportes, y en especial, mencionar las novedades introducidas en comparación del presupuesto anterior.

#### Estado de gastos:

Los programas de gasto incluidos son los siguientes:

- 340.00 Administración General del Deporte
- 341.10 Promoción y Fomento del Deporte. Clubes (Deporte Federado)
- 341.30 Promoción y Fomento del Deporte. Deporte Escolar
- 341.40 Promoción y Fomento del Deporte. Deporte para todos (usos y campañas)
- 342.10 Instalaciones Deportivas. Instalaciones Principales
- 342.20 Instalaciones Deportivas. Otras Instalaciones
- 342.30 Instalaciones Deportivas. Otras Instalaciones (locales de clubes)

#### **Programa 340.00 Administración General del Deporte.**

En este programa se incluyen los gastos de personal de la subárea (Capítulo I) y gastos generales imputados directamente a la oficina de la subárea como partidas para consumo telefónico y material de oficina.

#### **Programa 341.10 Promoción y Fomento del Deporte. Clubes (Deporte Federado).**

En este programa se incluyen los gastos para el



sustatzeko gastuak (batez ere dirulaguntzak).

**341.30 Kirola sustatu eta bultzatzea. Eskola Kirola Programa.**

Programa honetan sartzen dira Eskola Kirola antolatzeko gastuak (Errenterian Eskola Kirola antolatzeko lanean parte hartzen duten hezkuntza entitateei ematen zaizkien dirulaguntzak barne).

**341.40 Kirola sustatu eta bultzatzea. Kirola denontzat Programa.**

Programa honetan sartzen dira kirol orokorra sustatzeko gastuak, hau da, ez kirol federatuan ez eskola kirolean sartuta ez dauden pertsonen kirola.

**342.10 Kirol instalazioak. Instalazio nagusiak. Programa.**

Barne hartzen ditu batez ere oro-har hiritar guztiontzako kirolak erabiltzen dituen instalazioetan egiten diren inbertsio eta gastuak, hala nola Galtzarabordako Kiroldegia, Fanderiako Igerilekuak eta Beraungo Igerilekuak.

**342.20 Kirol instalazioak. Beste instalazio batzuk. Programa.**

Barne hartzen ditu batez ere kirol federatuak erabiltzen dituen instalazioetan egiten diren inbertsio eta gastuak, hala nola Fanderiako Pilotalekua, Fanderiako Futbol Zelaia, Beraungo Estadioa eta Beraungo Erabilera Aniztarako Kirol Pista.

**342.30 Kirol instalazioak. Beste instalazio batzuk (klubek lokalak) Programa.**

Klubei utzitako lokaletan egiten diren inbertsio eta gastuak, Udalak aurrekontuaren kontura ordaintzen dituenak.

Gastu horiek estimatzeko garaian batez ere 2021. ekitaldian onartutako betebeharrak eta 2022.

fomento del deporte de los clubes federados (básicamente subvenciones).

**Programa 341.30 Promoción y Fomento del Deporte. Deporte Escolar.**

En este programa se incluyen los gastos imputables a la organización del Deporte Escolar (incluidas las subvenciones a entidades educativas que participan en la organización del Deporte Escolar en Errenteria).

**Programa 341.40 Promoción y Fomento del Deporte. Deporte para todos.**

En este programa se incluyen los gastos imputables al fomento del deporte generalista, es decir, el deporte de las personas que no están incluidas ni en el deporte federado ni en el escolar.

**Programa 342.10 Instalaciones Deportivas. Instalaciones Principales.**

Incluye las inversiones y gastos en las instalaciones que prioritariamente utiliza el deporte para toda la ciudadanía en general, es decir, Polideportivo de Galtzaraborda, Piscinas de Fandería y Piscinas de Beraun.

**Programa 342.20 Instalaciones Deportivas. Otras Instalaciones.**

Incluye las inversiones y gastos en las instalaciones que prioritariamente utiliza el deporte federado, es decir, Frontón de Fandería, Campo de Fútbol de Fandería, Estadio de Beraun y Pista Deportiva Polivalente de Beraun.

**Programa 342.30 Instalaciones Deportivas. Otras Instalaciones (locales de clubes).**

Incluye las inversiones y gastos de locales cedidos a clubes y que el Ayuntamiento abona directamente con cargo a su presupuesto.

A la hora de estimar gastos se han tenido en cuenta principalmente las obligaciones reconocidas en el



**ERRENTERIAKO UDALA**  
Kirolak



ekitaldian egindako aurrekontu likidazioaren aurrerapena hartu dira kontuan.

Oro har, gastu arruntari eusteko politika aurreikusi da murriztu dira.

Irizpide orokor gisa aurrekontuan soilik sartu da zerbitzua eman ahal izateko egin beharreko konponketak eta legez bete beharreko mantenimendu kontratuak.

Horretaz gain, kontuan hartu da 2023. ekitaldian egin behar diren kontratazio publikoek izango duten eragina, "Kontratazioen inbentarioan" jasotakoaren arabera. Kontratazio horien artean, Galtzarabordako Udal Kiroldegiko, Fanderiako Udal Igerilekuko eta Errenteriako Beraungo Udal Igerilekuetako kudeaketa, kirol ustiaketa, uretako sorospen, mantentze eta garbiketa zerbitzuak berritzeko prozedura nabarmentzen da (299.000 euroko partida gaitu da kontratu honen betebeharrei aurre egiteko).

Era berean, 40.000 euroko partida bat sartu da 2023ko Itzuliaren (UCI egutegian sartutako txirrindularitza proba) etapa baten irteera bat antolatzeko kontrataziorako, 2023ko apirilaren 5ean.

Partida bat ere sartu da, Errenteriako Udalak onartutako "Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plan Integralean" ezarritako helburuen barruan "Orientazio Fisikoko Zerbitzu" baten ezarpenari buruzko azterlan bat egiteko.

Dirulaguntzen atalean jasotzen dira federatutako kirol entitate, Eskola Kiroleko programan parte-hartzen duten familia eta ikastetxeentzat aurreikusitako laguntzak. Sartu dira Touring Kirol Elkartearekin (bere mendeurrenagatik 30.000 euroko dirulaguntza erreserbatu da), Hibaika Arraun Elkartearekin, Mindara Elkartearekin (aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 20.000 eurora igo da udalaren ekarpena) eta EPLE – Errenteriako Pilotaren Lagunen Elkartearekin sinatutako lankidetzak hitzarmenen

ejercicio 2021 y el avance de la liquidación presupuestaria realizada en el ejercicio 2022.

En líneas generales está prevista una política de contención del gasto corriente.

Como criterio general se ha presupuestado exclusivamente la realización de reparaciones que garanticen la prestación del servicio y contratos de mantenimientos por exigencia legal.

También se ha tenido en cuenta el impacto de las nuevas contrataciones públicas que se deben realizar durante el ejercicio 2023 y que se recogen en el "Inventario de Contratación". Destacan entre estas contrataciones el procedimiento para la renovación de los servicios de gestión, explotación deportiva, socorrismo acuático, mantenimiento y limpieza de las instalaciones del Polideportivo Municipal de Galtzaraborda, Piscinas Municipales de Fanderia y Piscinas Municipales de Beraun de Errenteria (se ha habilitado una partida de 299.000 euros para hacer frente a las obligaciones de este contrato).

Se ha incluido asimismo una partida de 40.000 euros para la contratación de la organización de una salida de una etapa de la "Itzulia 2023", prueba ciclista incluida en el calendario UCI, el 5 de abril del 2023.

Se ha incluido también una partida con el objetivo de realizar un estudio sobre la implantación de un "Servicio de Orientación Física", dentro de los objetivos marcados en el "Plan Integral de la Actividad Física y del Deporte" aprobado por el Ayuntamiento de Errenteria.

En el capítulo de subvenciones se recogen las ayudas previstas a entidades deportivas federadas, familias que participan en el programa del Deporte Escolar y centros escolares de Errenteria. Se han incluido partidas que recogen las subvenciones nominativas derivadas de las firmas de convenios de colaboración con Touring KE (por su centenario se han reservado una subvención de 30.000 euros), Hibaika Arraun Elkartea, Mindara Elkartea (con respecto al ejercicio anterior se ha incrementado



**ERRENTERIAKO UDALA**  
Kirolak



ondoriozko dirulaguntza izendunak jasotzeko partidak.

Dirulaguntzen kapituluak, dirulaguntza lerro bakar batean bateratu dira Errenteriako ikastetxeek antolatutako eskola-kirola kudeatzeko eta artatzeko programa espezifikoak (aurrejamin, benjamin eta kimu kategoriak) finantzatzeko bi ildoak. 2023ko ekitaldirako 118.500 euro aurreikusitako dira.

Eskola-kirola egiteko familiei ematen zaizkien laguntzak mantendu dira.

**Sarreraren egoera:**

2021eko ekitaldirako likidazio-datuak eta 2022ko ekitaldirako diru-sarreraren bilakaera oinarritat hartuta kalkulatu dira.

Ez dira kontuan hartu ordenantza fiskaletatik eratorritako diru-sarreraren egituran izan litezkeen aldaketak, ordenantzak ez baitira aldatu.

Transferentzia edo dirulaguntzei dagokienez, hurrengoak adierazi behar dira, dagozkion gastuekin batera:

- Gipuzkoako Foru Aldunditik jasoko diren dirulaguntzak, guztira 50.000,00.-euro, hauek finantzatzeko: enpresa bat kontratatzea Eskola Kirola Programa koordinatzeko enpresa kontratatzeak, programa horren barruan ikastetxeek egiten dituzten jarduerak diruz lagundu eta Errenterian eskola igeriketa programa egin.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan.

Kirolak departamentuko Arduraduna. / Responsable del Departamento de Deportes.

Stua./ Fdo.: Luis Peña

hasta los 20.000 euros la aportación municipal) y EPLE – Errenteriako Pilotaren Lagunen Elkartea.

En el capítulo de subvenciones se han unificado en una única línea de subvención las dos líneas destinadas a la financiación de programas específicos de gestión y atención del deporte escolar (categorías prebenjamín, benjamín y alevín) organizado por los centros escolares de Errenteria. Para este ejercicio se ha previsto la cantidad de 118.500 euros.

Se han mantenido las ayudas a las familias para la práctica del deporte escolar.

**Estado de ingresos:**

Han sido calculados tomando como base los datos de liquidación del ejercicio 2021, y la evolución de los ingresos en el ejercicio 2022.

No se han tenido en cuenta posibles modificaciones en la estructura de ingresos derivados de las ordenanzas fiscales ya que éstas no han sido modificadas.

En relación a las transferencias o subvenciones previstas cabe mencionar las siguientes, junto a sus correspondientes gastos:

- Subvenciones a recibir de la Diputación Foral de Gipuzkoa por importe de 50.000,00.-euros para financiar los gastos derivados de la contratación de una empresa para la Coordinación del Programa de Deporte Escolar y el pago de las subvenciones a centros escolares derivados de este programa.

Errenteria, a la fecha de la firma.

Kirolak departamentuko Zinegotzi Delegatua. / Concejala Delegada del Departamento de Deportes.

Stua./ Fdo.: Maite Gartzia



(Inf.SG-122\_20221114)

**2023KO AURREKONTUA**

**PRESUPUESTO 2023**

**MEMORIA**

**MEMORIA**

**SAILA / DEPARTAMENTUA:**

**ÁREA / DEPARTAMENTO:**

**Idazkaritza**

**Secretaría General**

Memoria honen xedea da Idazkaritza sailaren / departamentuaren gastu eta sarrera aurrekontu proiektuaren ezaugarri nagusienak azaltzea, eta bereziki aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta sartu diren berrikuntzak azalera.

La presente memoria tiene por objeto recoger las principales características del proyecto de presupuesto de gasto e ingreso del área / departamento de Secretaría General, y en especial, mencionar las novedades introducidas en comparación del presupuesto anterior.

Aipatu behar dira ogasunetik helarazi zaizkigun jarraibideak 2022ko gastua ez igotzeko. Horrela, gure aurrekontua **47.500 eurokoa** izango da, 2022koaren kopuru berdina nahiz bi partiden arteko aldeketa txiki batzuk proposatu.

Cabe mencionar las directrices de que se nos han hecho llegar desde intervención de no incrementar el gasto del año 2022. De este modo nuestro presupuesto asciende a **47.500 €** (igual que en 2022 con unas mínimas variaciones entre dos partidas).

Idazkaritzako partidetan murrizketak planteatzeko geratzen den tarte oso txikia da ondorengo bi arrazoiengatik. Batetik, partiden kopuruak kontuan hartuz gero, azken urteetan egin ditugun ajuste eta birkokapenak kontuan hartuta jada ez zaigu murrizketarako tarterik geratzen aurreikuspenen bideragarritasuna arriskuan jarri gabe. Eta bestetik, ditugun partida motak aintzat hartuz gero, ikus daiteke guztiak gure administrazioaren funtzionamendurako ezinbesteko gastu estrukturalak direla, izan ere gainerako departamentuen jardun administratiboaren euskarri dira.

El margen de maniobra existente en las partidas de secretaría para plantear minoraciones es mínimo por una doble razón: por un lado, por las propias cuantías de las partidas, ya que en los últimos años hemos realizado los ajustes y redistribuciones necesarios que ya no nos permiten mayores reducciones sin riesgo de ser absolutamente inviables las previsiones y, por otro lado, por la propia tipología de partidas previstas, todas ellas referidas a gastos estructurales indispensables para el propio funcionamiento de nuestra administración, ya que sirven de soporte para el desarrollo de la actividad administrativa del resto de departamentos.

**Gastuen egoera:**

**Estado de gastos:**

Sartzen diren gastu programak hurrengoak dira:

Los programas de gasto incluidos son los siguientes:

***92000 Programa.- Administrazio orokorra***

***Programa 92000 Administración general***

Gastu programa honen baitan, idazkaritzaren menpe hainbat partida daude:

Dentro de este programa de gasto bajo la supervisión de secretaría se encuentran diversas partidas:



**1.610.226.04.920.00 gastu juridikoak**

2022ko aurrekontuarekiko **1.000 euroko murrizketa, 2023rako 18.000 euroko kopurua** proposatuz.

2021eko aurrekontuan partida 10.000 eurotan gutxitu zen 2020ko aurrekontuarekiko (2020ko aurrekonturako beste 10.000 eurotan gutxitu zen partida), 2014ko (2015era luzatua) aurrekontuaz geroztik kopuru baxuena (orduan baino 10.000,00 euro gutxiago eta azken ekitaldietako aurrekontutan baino dexentez gutxiago).

2021erako proposatu genuen murrizketa ziurgabetasun dexentekin burutu genuen, kontuan hartuz auzi bidean dugun gai kopurua, nahiz esan behar den gehienak udal zerbitzu juridikoak ari direla defendatzen (kasu batzutan saturazio maila haundiarekin bada ere). Ziurgabetasun horren beste arrazoia da jada auzi bidean dugun kasuren baten espezializazio maila altuagatik gomendagarria izatea bere defentsa kanporatzea, eta baita sor daitezkeen bestelako kanpo aholkularitza beharrak edota balizko kostak ordaindu behar izatea.

2022ko aurrekonturako argudio berdinak mantendu genituen eta 2023rako ere mantentzen ditugu.

Nahiz bulegoko materialari (paperaren hornidura) dagokion partida gehitu beharrean aurkitzen garen ondorengo ataleak azalduko dugun moduan, idazkaritzako partida guztiak aztertu ondoren gastu juridikoen partida pixka bat gehiago murriztea erabaki dugu.

Egoera aldatuko balitz beharrezkoa izango litzateke partida gehitzea kreditu aldaketa bidez eta aztertu beharko litzateke idazkaritzatik kanpo zein partidetan egon daiteken horretarako tartea.

2022ko aurreikuspena burutzeko 2021eko irail bukaera arteko exekuzio maila (baimendua) aztertu da eta baita 2020, 2019 eta 2018ko exekuzioa ere eta horren baitan burutu da kopurua pixka bat murrizteko proposamena.

**1.610.220.01.920.00 bulego materiala idazkaritza**

**1.610.226.04.920.00 gastos jurídicos**

Con respecto al presupuesto de 2022 se ha propuesto **minorar 1.000 €** proponiendo así una cuantía de 18.000 € para 2023.

En el presupuesto de 2021 ya se redujo la partida en 10.000 € respecto al presupuesto de 2020 (en el que se redujo en otros 10.000 respecto al presupuesto de 2019) situándose en la cuantía más baja desde el presupuesto de 2014 prorrogado al 2015 (10.000 euros menos que en aquella ocasión y muy por debajo de los presupuestos de los últimos ejercicios).

La minoración propuesta para 2021 se realizó con mucha incertidumbre a la vista del volumen de asuntos judicializados que tenemos (si bien la mayoría se están llevando por parte de los servicios jurídicos municipales, aunque con un grado de saturación en algunos casos) y la elevada especialización que pueda exigir algún asunto ya judicializado y que haga necesaria su externalización, sin perjuicio de otras necesidades de asesoramiento externo que puedan surgir o de eventuales costas que haya que sufragar.

Los mismos argumentos se mantuvieron para el presupuesto de 2022 e incluso se mantienen para el 2023.

Si bien ante la necesidad de incrementar la partida de material de oficina (suministro de papel) que a continuación explicaremos, una vez analizadas las partidas de secretaría hemos decidido ajustar aún más la partida de gastos jurídicos.

Si la situación cambiara sería necesario volver a incrementar la partida mediante la correspondiente modificación de créditos y habría que analizar fuera de secretaría las partidas que pudieran ofrecer margen para ello.

Para realizar la previsión de 2022 se ha analizado el grado de ejecución (autorizado) a finales de septiembre de 2021 y también el de 2020, 2019 y 2018 y en base a ello se ha decidido reducir un poco la cuantía.

**1.610.220.01.920.00 material de oficina secretaría**





2022ko aurrekontuarekiko begira 1.000 euroko gehikuntza egin dugu eta 2023rako 5.000 euro proposatu dira.

Azken urteetan partida horretan murrizketa-ariketa bat egiten ari ginen, eta espero genuen jakinarazpen elektronikoak bultzatzeak eta dekretuak sinadura elektronikoak izapidetzeak eta espedienteen kudeatzailearen erabilera orokortzeak paperaren erabilerearen bolumena murriztea ekarriko zuela. Gure ustez, horrek murrizketa-eragina izan du, baina, aldi berean, papera garestitu egin da, baita hornidurarik gabeko arazo puntualak ere izan ditugu 2022an zehar.

Bulegoko materialaren hornidura eta, beraz, papera GFaren kontratazio-zentralaren bidez kontratatzen dugu. Paper-loteari dagokionez, indarrean zegoen kontratua indargabetu da, 2022. urtean esleipen berri bat egin da, gutxieneko aldi baterako, eta kontratu hori berriro esleitzea aurreikusten dugu, baina prezio altuagoarekin. Hori dela eta, partida handitzea erabaki dugu.

Aurrekoa azaldu ostean 2023ko aurreikuspena burutzeko 2022ko irail bukaera arteko exekuzio maila (baimendua) aztertu da eta baita 2021eko, 2020ko eta 2019ko exekuzioa eta aurreko urteetako exekuzioa ere. Exekuzio hori ia inoiz ez bada izan ere orain egiten dugun proposamena bezain murrizta (nahiz kopurua orain zertxobait igo), uste dugu paperaren erabilera gutxitzen jarraituko dela espediente elektronikoaren orokortuari esker, nahiz paperaren prezioaren goranzkoarekin jarraitu.

Azpimarratu behar da (aurreko urteetako memorietan ere egin zen bezala) udalean erabiltzen den papera partida honen gain doala, nahiz eta hornidura beharrak eta hornitze eskaerak ingurumena departamentutik bideratzen diren honi dagokiolako paper mota hautatzea. Funtzionamendu modu honek, non bi/hiru azpisailek parte hartzen duten beharren kudeaketa eta kontrola asko zailtzen dute eta baita paperaren erabilerari dagokionean murrizketara bideratuako kontsumo arduratsu bat bultzatzeko politika ere, baina gai honi ezin izan diogu heldu.

En relación al presupuesto de 2022 hemos hecho un incremento de 1.000 € y se ha propuesto 5.000 € para 2023.

Si bien durante los últimos años veníamos realizando un ejercicio de reducción en esta partida y confiábamos que el impulso de las notificaciones electrónicas y la tramitación con firma electrónica de los decretos y la generalización del uso del gestor de expedientes conllevara a una reducción del volumen de uso de papel, cuestión que si creemos que ha tenido un efecto de reducción, a lo largo de 2022 a la vez nos hemos encontrado con un encarecimiento del papel e incluso problemas puntuales de desabastecimiento.

El suministro de material de oficina y por ende el papel lo contratamos a través de la central de contratación de la DFG. Se ha resuelto el contrato vigente en cuanto al lote de papel, se ha realizado una nueva adjudicación por un periodo muy mínimo a lo largo del presente año 2022 y prevemos volver a adjudicar dicho contrato pero con un precio superior por lo que hemos decidido incrementar la partida.

Explicado lo anterior para realizar la previsión de 2023 se ha analizado el grado de ejecución (autorizado) a finales de septiembre de 2022 y también el de 2021, 2020, 2019 y la ejecución de años anteriores, que si bien prácticamente nunca ha sido tan reducida como la propuesta actual aún con el mínimo incremento ahora propuesto, confiamos que la generalización del expediente electrónico continúe conllevando una reducción del volumen de uso de papel aunque el precio siga incrementando.

Conviene resaltar (tal y como se viene indicando en las memorias de años anteriores) que el papel que se consume en el ayuntamiento se imputa a esta partida, si bien el control de las necesidades de suministro del mismo y las solicitudes para dicho suministro se realizan desde el departamento de medio ambiente ya que corresponde a éste la selección del tipo de papel a utilizar. Esta forma de actuar en la que intervienen dos/tres departamentos dificulta considerablemente la gestión y control de las necesidades e incluso una política de consumo responsable del uso de papel encaminada a la reducción del mismo, pero esta es una cuestión que no hemos podido abordar.



Gainerako idazkaritzako bulego materiala partida honen gastu portzentaian gutxieneko bat da.

**Gainerako partidetan** ez dugu inolako aldaketarik proposatu 2022rako onartutako aurrekontuarekiko eta ondorioz, aurreko urteetako murrizketen ondoren, 2022rako onartutako kopuruak **mantentzea** proposatzen dugu, nahiz berriro azpimarratu behar dugun gure zalantza ondorengo partidari dagokionez.

**1.610.226.03.920.00 publizitatea eta propaganda: ad. orokorra**

2022ko aurrekontuarekiko partida **berdin mantendu** da eta 2023rako 10.000 euro proposatu dira.

Baina partida honen fluktuabilitatearen inguruan ohartarazi behar da eta baita prentsan argitaratzen den iragarki bakoitzaren prezio altua. Horregatik soilik lege ezinbestekoak diren iragarkiak bakarrik bideratu/iragarri beharko dira.

2021eko eta 2022ko aurrekontuen memorietan adierazi zen bezala sail bakoitzari dagokion espedientearen baitako iragarkiak idazkaritzaren alde aurreko kontrolik gabe argitaratzen dira soilik dagokion sailaren arduraren baitan. Idazkaritza sailaren partehartzea iragarki horien faktura iristerakoan gauzatzen da, hau da, faktura balidatzeko garaian behin iragarkia argitaratua izan ondoren eta horrek kontrola oraindik gehiago zailtzen du, baina iragarki bakoitzarekiko idazkaritzaren alde aurreko oniritzia ere ez da bideragarria.

2021eko eta 2022ko aurrekontuen memorietan adierazitako argudioak 2023ko aurrekonturako baliagarriak dira 2023an ere hainbat proiektu exekutatzeko jarraituko den heinean. GGBBtako departamentuan LEPren (ohiko zein estabilizazioko ezhikoaren) garapenean derrigorrez argitaratu beharreko iragarki kopurua gehituko dela aurrekusi daiteke, baita HAPOn izapidetzarekin lotutako hainbat izapideen iragarkiak ere eta baita, besteak beste, Gamongoa eta Alzaten izapidetu beharreko gainerako hirigintza tresnak ere, argitaratu behar diren beste mota batzuetako lizitazioak, etab

**1.610.220.02.920.00 harpidetzak idazkaritza**

El resto del material de oficina de secretaría resulta mínimo en el porcentaje de gasto.

En el **resto de partidas** NO hemos propuesto ningún cambio respecto al presupuesto aprobado para 2022 y por lo tanto tras las sucesivas minoraciones de los años anteriores proponemos **mantener** las cuantías aprobadas para 2022 reiterando nuestra incertidumbre fundamentalmente en el siguiente caso.

**1.610.226.03.920.00 publicidad y propaganda: ad. general**

Respecto al presupuesto de 2022 se ha **mantenido igual** la partida y se ha propuesto 10.000 € para 2023.

No obstante se ha de advertir de la fluktuabilidad de esta partida y el elevadísimo importe de cada anuncio publicado en prensa, por ello se habrá de remitir/publicar únicamente lo estrictamente necesario legalmente.

Tal y como se indicó en las memorias del presupuesto de 2021 y 2022 el hecho de que los anuncios de publicación se remitan desde cada departamento y bajo su responsabilidad en el seno de la tramitación de cada expediente sin la intervención de secretaría hasta el momento de validación de la factura una vez producida la publicación dificulta aún más el control, pero tampoco resulta viable ni operativo el previo visto bueno de cada anuncio desde secretaría.

La argumentación esgrimida en las memorias del del presupuesto de 2021 y del 2022 continúa siendo válida para el presupuesto de 2023 por la continuidad de la ejecución de diversos proyectos durante el 2023. Se prevé que la ejecución de la OPE (ordinaria y extraordinaria de estabilización) desde el departamento de RRHH incrementará el número de anuncios preceptivos a publicar en dicho departamento, también diferentes publicaciones de trámites relativos a la tramitación del PGOU y otros instrumentos urbanísticos a tramitar en los ámbitos de Gamongoa y Alzate entre otros, otro tipo de licitaciones que si han de publicarse, etc

**1.610.220.02.920.00 suscripciones idazkaritza**

ERRENTERIAKO UDALA  
Idazkaritza



AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA  
Secretaría General

2021eko aurrekontuan harpidetzekiko hartutako erabaki berdinarekin jarraitzea proposatzen da eta idazkaritzan soilik aholkularitza juridiko guztiari bere osotasunean sostengua ematen dioena bakarrik mantentzea eta ez hainbeste departamentu desberdinenak. Azken hauek, 2023ko aurrekontuan ere, gastu programa bakoitzaren mende jaso dira dagokion departamenduaren ardurapean.

Harpidetza horiek beharrezkotzat jotzen ditugu aholkularitza egokiena eskeini ahal izateko eta beraz, dauzkagun harpidetzekin jarraitzea proposatzen dugu eta 2023rako 2022ko aurrekontuko kopuru berberetan mantentzea (14.300 euro) besteren bat ere kontratatzea baloratu ahal izateko, nahiz eta gomendagarria izan urtero berrikustea berauen berritzea edo ez.

**Sarrerren egoera:**

Orokorrean ez dira aurreikusten. Salbuespena: epaitegian bideratutako prozesuetatik eratorritako udalaren aldeko balizko kostak. Ezin dira aurreikusi eta gertatuz gero gastu juridikoen partidara gehitu beharko lirateke.

Gobernuko subdelegaritzatik udal hauteskundetako papeletak idazkaritzako bulegoko materialeko partidara (8957) bideratzeko: **300 euro** gutxi gorabehera (0,003 papeletako X 100.000 papeleta)

2018ko aurrekontuan EHUrekin garatu zen lanketaren ondorioz txertatutako kodifikazio berria mantendu da.

Errenterian, sinaduraren datan

Sin.- Nagore Sarasola Otermin  
Idazkari orokorra

Se propone continuar con la decisión adoptada en el presupuesto de 2021 respecto a las suscripciones y mantener en secretaría únicamente las que dan soporte a toda la asesoría jurídica en su conjunto y no tanto las específicas de los diferentes departamentos, que se han recogido, también para 2023, dentro de cada programa de gasto bajo la dependencia del departamento respectivo.

Resultando muy útiles dichas suscripciones para poder ofrecer el asesoramiento más óptimo posible proponemos continuar con las suscripciones que tenemos y para 2023 mantener la cuantía en idénticos términos (14.300 €) que en el presupuesto de 2022 y poder valorar así la contratación de alguna más, no obstante la necesidad de revisar anualmente la conveniencia o no de renovar las mismas.

**Estado de ingresos:**

En general no se prevén. Excepción: posibles costas a favor del ayuntamiento provenientes de procesos judicializados. No se pueden estimar y caso de producirse deberían revertir a la partida de gastos jurídicos.

Derivación de papeletas de las elecciones municipales desde la subdelegación de gobierno a la partida de material de oficina de secretaría (8957): **300 €** aproximadamente (100.000 papeletas X 0,003 € por papeleta).

Se ha mantenido la nueva codificación derivada del trabajo que se realizó junto con la UPV para el presupuesto de 2018.

En Errenteria, a la fecha de la firma

Sin.- Idazkaritza Orokorreko Zinegotzi  
delegatua/ delegada de Secretaria gnal)

**Sinaduren laburpena / Resumen de firmas****Titulua / Título:**

Aurrekontu Txostena

Sinatzailea 1 / Firmante 1: NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N  
Idazkari Orokorra  
Data / Fecha: 2022/11/14 10:33:18

Sinatzailea 2 / Firmante 2: MIREN ALAZNE KORTA ZULAIKA - 15956145X  
Data / Fecha: 2022/11/14 12:45:39

**2023KO AURREKONTUAK - MEMORIA****17.- Kontratazioa eta Ondarea:**

Memoria honen xedea da Kontratazioa eta Ondarea azpisaileko gastu eta sarreren aurrekontu-proiektuaren ezaugarri nagusiak jasotzea, eta, bereziki, aurreko aurrekontuarekin alderatuta egindako berrikuntzak aipatzea.

**2023ko aurrekontuari dagokionez, hauek dira aipatu beharreko alderdi nagusiak:****Gastuen egoera:**

Oro har, aurreko urteen antzeko gastu-maila proposatu da, nahiz eta erreferentziazko urtean aldaketak gerta daitezkeen, batez ere aurreikusi gabeko derramei eta garaje eta etxebizitzentzako mantentze-lanei dagozkien gastuetan, eta kasu honetan baita inbertsioetarako derramen ondorioz ere.

- Gastu batzuk aldatu gabe mantendu dira, hala nola bulegoko materialari, mezularitzari eta beste udal batzuei ordaindu beharreko zerrei dagozkienak.

- Eta ildo beretik, 50.000 euroko gastu-aurreikuspenari eutsi zaio jabari publiko hidraulikoa erabiltzeko kanonaren kontzeptuan; izan ere, 2022eko zenbatekoa 2021koaren antzekoa izan da, eta beraz, uste da 2023an ere ez dela aldatuko.

- Kalteetarako, erantzukizun zibilerako (frankizia barne) eta jaietarako aseguru-polizei dagokionez, kontratu hori 2021ean lizitatu denez, primak mantenduko dira 2022ko zenbateko berakin.

- Gastu juridikoen partida ia erdira murriztu zen 2022, eta mantendu ahal da horrela 2023 urtean, baina baliteke urtean zehar aurreikusi gabeko gastuak agertzea.

- Azpisail honek kudeatzen dituen garaje eta etxebizitzentzako funtzionamenduari lotutako gastuetan (1.1710.212.01.933.10 partida, kode laburtua: 9566), 14.500 €ko gastua aurreikusi bada ere, benetako gastua etxebizitzentzako eta garajeen benetako problematikaren arabera izango da.

- Udalaren jabetzako lokalek eragindako gastuei dagokienez, ohiko gastuak (kuotak batez ere) aparteko gastuetatik bereiztea komeni da.

**PRESUPUESTOS 2023- MEMORIA****17.- Contratación y Patrimonio:**

La presente memoria tiene por objeto recoger las principales características del proyecto de presupuesto de gasto e ingreso de la Subárea de Contratación y Patrimonio y en especial, mencionar las novedades introducidas en comparación del presupuesto anterior.

**En relación al presupuesto de 2023 los principales aspectos a reseñar son los siguientes:****Estado de gastos:**

Con carácter general se plantea un nivel de gasto similar a años anteriores, aun cuando durante el año de referencia es posible que se produzcan variaciones fundamentalmente en los gastos relativos a derramas no previstas y mantenimiento de garajes y viviendas, en este caso también por derramas para inversiones.

- Algunos gastos se mantienen sin variación como son los correspondientes a material de oficina, mensajería e impuestos a otros Ayuntamientos.

-Y en la misma línea, se mantiene la previsión de gasto de 50.000 euros en concepto de Canon de utilización del dominio público hidráulico, ya que el importe correspondiente a 2022 ha sido similar al de 2021, por lo que se entiende que tampoco variará en 2023.

-En lo que respecta a los gastos correspondientes a las pólizas de seguros de daños, Responsabilidad Civil (incluida Franquicia) y fiestas, al haberse adjudicado el año 2021 este contrato se mantienen las primas en el mismo importe que el 2022.

- La partida de gastos jurídicos se redujo prácticamente a la mitad en 2022 y se puede mantener así para el 2023, si bien durante el transcurso del año pueden producirse gastos no previstos.

- En los gastos ligados al funcionamiento de los garajes y viviendas que gestiona esta Subárea, (partida 1.1710.212.01.933.10 (código abreviado: 9566), se prevé un gasto de 14.500 €, si bien el gasto real dependerá de la problemática real de las viviendas y garajes.

- En cuanto a los gastos derivados de los locales propiedad del Ayuntamiento, resulta conveniente distinguir los gastos ordinarios, cuotas fundamentalmente, de los gastos extraordinarios.

Horri dagokionez, honako hauek lirateke bi kontzeptu horietarako hasiera batean aurreikusitako gastuak, betiere kasuan kasuko jabekideen erkidegoek har ditzaketen akordioak une honetan ez ezagutzearen ondoriozko zuhurtziaz:

Aurreikusitako arruntak: 14.500 euro.  
Aurreikusitako apartekoak, egun honetarako: 36.000 euro.

- Merkatuzar aparkalekuaren kudeaketari dagokionez, sarbidea kontrolatzeko sistema berria ezarri da, eta horrek ekarriko luke kontratu horri dagokion gastua 2022an 30.100€-koa izatea (zerbitzuaren kostua eta aurreikusitako inbertsioa).

Turismo Bulego lokalaren alokairuko gastuari dagokionez, urtebeteko areagotze ezarri zen aurreko urteko KPIkoa kontuan hartuta, ondorioz aurreikusten da gehienez 19.600€ko gastua izatea. Hala ere, gertatu liteke, jabeak bere borontatez eta normalean egiten duen bezela, kopuru hori ez eskatzea baizik eta txikiagoa.

#### **Diru-sarreraren egoera**

Hurrengo diru-sarrerak aurreikusten dira:

- Udal lokalak besterentzea: 400.000 €
- Etxebizitzaren erabilaren zeresioaren kanona: 52.500 €
- Kanonak Kontratazioa eta Ondarea: 340.000 €

Azkenik, aurreikusten da Merkatuzar aparkalekuko diru-bilketa areagotuko dela, etorkizunean bonuen ezarpenaren ondorioz, beraz, diru-sarrera 70.000€koa izango litzateke.

Erreterian, sinaduraren datan.

KONTRATAZIOA ETA ONDAREA AZPISAILEKO  
ORDEZKARIAren oniritzia

Vº Bº DEL DELEGADO DE LA SUBÁREA DE  
CONTRATACIÓN Y PATRIMONIO

Stua.: Iñaki Queralt Coira.

A este respecto los gastos previstos inicialmente para ambos conceptos, con la natural cautela derivada del desconocimiento en el momento presente de los acuerdos que puedan adoptar las comunidades de vecinos correspondientes, serían los siguientes:

Ordinarios previstos: 14.500 euros.  
Extraordinarios previstos a esta fecha: 36.000 euros.

- En relación a la gestión del aparcamiento de Merkatuzar, se ha implantado un nuevo sistema de control de acceso, lo que implica que el gasto correspondiente a dicho contrato ascenderá en 2023 a 30.100€ (coste del servicio y la inversión).

En relación al gasto relativo al arrendamiento del local de la Oficina de Turismo, se estableció un aumento anual del IPC del año anterior por lo que se prevé un gasto máximo de 19.600 €, sin perjuicio de que la propietaria de forma voluntaria y como viene haciendo habitualmente no solicite esa cantidad sino una inferior.

#### **Estado de ingresos:**

Se prevén los siguientes ingresos:

- Por enajenación de locales municipales: 400.000 €
- Por canon de cesión de uso de viviendas: 52.500 €
- Por cánones de Contratación y Patrimonio: 340.000 €

Por último se prevé un aumento en la recaudación por la utilización del aparcamiento de Merkatuzar con motivo de la futura implantación de bonos, por lo que el ingreso total sería de 70.000 €.

En Erretería, en la fecha de la firma.

KONTRATAZIOA ETA ONDAREA  
AZPISAILAREN ARDURADUNA

EL RESPONSABLE DE LA SUBAREA  
CONTRATACIÓN Y PATRIMONIO

Stua.: Tomás Martín Azpillaga.

**Sinaduren laburpena / Resumen de firmas****Titulua / Título:**

2023ko aurrekontuak - Memoria zuzenduta

Sinatzailea 1 / Firmante 1: TOMAS MARTIN AZPILLAGA - 15947531K  
Data / Fecha: 2022/11/16 11:49:04

Sinatzailea 2 / Firmante 2: IÑAKI QUERALT COIRA - 15983050M  
Data / Fecha: 2022/11/16 13:20:55

**ERRENTERIAKO UDALA**

Agiritegi eta Argitalpenak

**AYUNTAMIENTO DE****ERRENTERIA**

Archivo y Publicaciones.

**2023KO AURREKONTUA****MEMORIA****SAILA / AZPISAILA:****18 ARTXIBO ETA ARGITALPENAK**

Memoria honen xedea da Agiritegi eta Argitalpenak azpisailaren gastu eta sarrera aurrekontu proiektuaren ezaugarri nagusienak azaltzea, eta bereziki aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta sartu diren berrikuntzak azalera.

**Gastuen egoera:**

Gastu programak honako hauek dira:

33220 Agiritegia  
33610 Kultur ondarearen babesa eta kudeaketa  
46300 Ikerkuntza zientifikoa, teknikoa eta aplikatua  
49200 Ezagutzaren kudeaketa.

**33220 Programa.- Agiritegia****PRESUPUESTO 2023****MEMORIA****ÁREA / SUBÁREA:****18 ARCHIVO Y PUBLICACIONES**

La presente memoria tiene por objeto recoger las principales características del proyecto de presupuesto de gasto e ingreso del subárea de Archivo y Publicaciones y en especial, mencionar las novedades introducidas en comparación al presupuesto anterior.

**Estado de gastos:**

Los programas de gasto incluidos son los siguientes:

33220 Archivo  
33610 Protección y gestión del patrimonio cultural  
46300 Investigación científica, técnica y aplicada.  
49200 Gestión del conocimiento.

**Programa 33220.- Archivo**

G/I	Partidaren kodea/Código Partida	Azalpena/ Descripción	2023	2022
G	1810.220.01.332.20	BULEGO MATERIALA / MATERIAL DE OFICINA	3.500	4.500
G	1810.226.01.332.20	OROIMEN HISTORIKOA / MEMORIA HISTÓRICA	15.000	40.000
G	1810.227.04.332.20	HAINBAT GASTU / GASTOS DIVERSOS	6.000	5.000
G	1810.230.01.332.20	DIETAK: ARTXIBOA / DIETAS: ARCHIVO	100	100
G	1810.627.02.332.20	AKTEN HUSTUKETA / VACIADO DE ACTAS	15.000	10.000
G	1830.481.01.332.20	DIRULAGUNTZA/SUBVENCIÓN: AIZPITARTE ELKARTEA	8.000	8.000
<b>33220 programaren zenbatekoa, guztira/total del programa 33220</b>			<b>47.600</b>	<b>67.600</b>

Agiri-ondarea euskarri fisikoan zaintzeko materialen hornidura murriztu egin da, administrazio elektronikoa gero eta gehiago ezartzen ari delako. Beraz, 2023rako eta bigarren urtez jarraian, Bulegoko materiala partidaren zenbatekoa murriztu da.

Memoria historikoa izeneko partidak Bizikidetza Lantzen proiektua finantzatzea eta *Memoria partekatu baterantz* 2015 txostena berrikustea eta zabaltzea onartu du 2022an. Hurrengo ekitaldian zenbatekoa egokitu da Bizikidetza Lantzen proiektua mantentzeko eta web edukiak ikusarazteko.

2022. urteko gastu igoeraren aurrean, Hainbat

La provisión de materiales para la custodia de patrimonio documental en soporte físico se ha reducido debido a la progresiva implantación de la administración electrónica. Por lo tanto, de cara a 2023 y por segundo año consecutivo, se reduce el importe de la partida de Material de oficina.

La partida de Memoria histórica ha asumido en 2022 la financiación del proyecto Bizikidetza Lantzen y la revisión y ampliación del informe *Memoria partekatu baterantz* de 2015. Se ha adecuado el importe del próximo ejercicio para mantener el proyecto de Bizikidetza Lantzen y acometer el de la visibilización de contenidos web.

Ante el incremento de gastos este 2022, se



ERRETERIAKO UDALA



AYUNTAMIENTO DE  
ERRETERIA

gastu partidaren zenbatekoa handitu egin da, udal ondarea sustatzeko eta zabaltzeko jarduerak programatu eta egiteko (bisita gidatuak, erakusketak, hitzaldiak, etab.).

Handitu egin da Aktak husteko partidaren zenbatekoa, proiektua bultzatzeko eta, hartara, XX. mendera iristeko.

Dietak eta Aizpitarte talde espeleologiko elkartearentzako zuzeneko diru-laguntza partiden zenbatekoari eutsi zaiou.

aumenta el importe de la partida de Gastos diversos para hacer frente a la programación y realización de actividades de promoción y difusión del patrimonio municipal (visitas guiadas, exposiciones, charlas, etc.)

Aumenta el importe de la partida de Vaciado de actas para impulsar el proyecto y alcanzar así el siglo XX.

Se mantiene el importe de las partidas de Dietas y Subvención directa a Aizpitarte talde espeleologiko elkarte.

**33610 Programa.- Kultur ondarearen babesa eta kudeaketa**

**Programa 33610.- Protección y gestión del patrimonio cultural**

G/I	Partidaren kodea / Código Partida	Azalpena / Descripción	2023	2022
G	1830.627.01.336.10	RESTAURAZIOA / RESTAURACION	5.000	5.000
33610 programaren zenbatekoa, guztira/total del programa 33610			5.000	5.000

Agiri ondarea zaharberitzeko partidaren kopurua mantenduko da.

Se mantiene el importe de la partida para la restauración del patrimonio documental.

**46300 Programa.- Ikerkuntza zientifikoa, teknikoa eta aplikatua**

**Programa 46300.- Investigación científica, técnica y aplicada.**

G/I	Partidaren kodea / Código Partida	Azalpena / Descripción	2023	2022
G	1830.480.01.463.00	KOLDO MITXELENA IKERKETA BEKA / KOLDO MITXELANA BECA INVESTIGACION	10.500	19.500
46300 programaren zenbatekoa, guztira/total del programa 46300			10.500	19.500

Koldo Mitxelena ikerketa-beka bi urtean behin egiten da. 2022an gastuak hauek izan dira:

- 2020ko deialdiaren 2. ordainketa (4.500 €).
- 2022ko deialdiko lehen ordainketa (4.500 €)

2023ren kasuan, gastu hauek ordainduko dira:

- 2020ko deialdiaren hirugarren ordainketa (atzeratua) (6.000 euro).
- 2022ko deialdiko 2. ordainketa (4.500 euro)

La beca de investigación Koldo Mitxelena se convoca/falla cada dos años. En 2022 los gastos han correspondido a:

- 2º pago de la convocatoria de 2020 (4.500€).
- 1er pago de la convocatoria de 2022 (4.500€)

En el caso de 2023 los gastos corresponderán a:

- 3er pago (atrasado) de la convocatoria de 2020 (6.000 euros).
- 2º pago de la convocatoria de 2022 (4.500 euros)

## ERRETERIAKO UDALA

AYUNTAMIENTO DE  
ERRETERIA

49200 Programa.- Ezagutzaren kudeaketa.

Programa 49200.- Gestión del conocimiento.

G/I	Partidaren kodea /Código Partida	Azalpena / Descripción	2023	2022
G	1830.227.04.492.00	ARGITALPENAK ARTXIBOA / PUBLICACIONES ARCHIVO	30.000	16.000
49200 programaren zenbatekoa, guztira/total del programa 49200			30.000	16.000

Argitalpenak izeneko partidaren zenbatekoa handitu da, proiektu hauei aurre egiteko: Oarso 2023, Bilduma 2023, Manchester txikia (II).

Aumenta el importe de la partida de Publicaciones para hacer frente a los siguientes proyectos: Oarso 2023, Bilduma 2023, Manchester txikia (II).

**Sarreraren egoera:****Estado de ingresos:**

G/I	Partidaren kodea /Código Partida	Azalpena / Descripción	2023	2022
I	2.1810.710.02.332.20 2022	Artxibo	5.000 €	5.000 €
	2.1830.311.13.492.00 2022	Aldizkari salmenta	1.500 €	1.500 €
	2.1830.420.01.327.20 2022	Foru Aldundia Giza Eskubideak	15.000 €	15.000 €

Diru-sarrera programen zenbatekoa, guztira / Total de los programas de ingresos

21.500 €

21.500 €

Ez da aldaketarik aurreikusi 2023ko diru-sarrera programetan.

No se prevén modificaciones en los programas de ingresos de 2023.

Errenterian, sinaduraren datan

En Errenteria, a la fecha de la firma

Sin./Fdo.: Leonor Garcia

Sin./Fdo.: Iñaki Queralt

Agiritegi eta Argitalpenak, Arduradun teknikoa

Agiritegi eta Argitalpenak, Zinegotzi Delegatua

**Sinaduren laburpena / Resumen de firmas****Titulua / Título:**

Memoria artxibo aurrekontua 2023

Sinatzailea 1 / Firmante 1: LEONOR GARCIA VAZQUEZ - 34092249Q  
Data / Fecha: 2022/11/14 13:59:48

Sinatzailea 2 / Firmante 2: IÑAKI QUERALT COIRA - 15983050M  
Data / Fecha: 2022/11/14 14:05:29



**2023KO AURREKONTUA**

**MEMORIA**

**SAILA/AZPISAILA:**

**19. Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)**

Memoria honen xedea da Informazio eta Komunikazio Teknologiak (aurrerantzean IKT) azpisailaren 2023 urteko gastu eta sarrera aurrekontu proiektuaren ezaugarri nagusienak azaltzea, eta bereziki aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta sartu diren berrikuntzak edota aldaketak azalartzea.

Memoria honetan ondorengo kontzeptuak zerrendatuko dira:

1. Gastuen egoera
  - 1.1. Aurrekontuaren laburpena
  - 1.2. Gastuen programak
2. Aurrekontuaren justifikazioa
  - 2.1. Gastu arrunta
  - 2.2. Inbertsioak
3. Aurrekontuaren aldaketak
  - 3.1. Beste sailetatik trasladatutako partidak
  - 3.2. Murrizketa jasan duten partidak
  - 3.3. Gehikuntza jasan duten partidak
4. Sarreren egoera

**1. Gastuen egoera**

- 1.1. Aurrekontuaren laburpena

2023 urterako IKT saileko aurrekontua ondorengo izango da:

- Gastu arrunta: 427.300,00 €
- Inbertsioak: 80.000,00 €

IKT saileko 2022 urteko gastu programak errebisatuta, Telefono bidezko komunikazioekin lotutako programa guztiak bakar batean elkartzea eskatzen da, kudeaketa errazteko. Gastu programa ezberdinetako zenbatekoa ondorengo programan geratuko litzateke:

1910.222.01.920.00  
TELEFONO BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK:  
ADMINISTRAZIO OROKORRA

**PRESUPUESTO 2023**

**MEMORIA**

**ÁREA/SUBÁREA:**

**19. Tecnologías de la Información y la Comunicación (TIC)**

